



# MOTOROLA V3x

Telefonoaren  
erabilera-gida.



# HELLOMOTO

---

Motorola RAZR™ V3x 3G telefono mugikor berriaren aurkezpena. Hona hemen telefonoaren errepasso azkarra.



www.hellomoto.com

Telefono mugikorraren ezaugarri batzuk zure operadorearen aukeren eta sare-konfigurazioaren arabekoak dira. Bestetik, baliteke zure operadoreak ezaugarri horietako batzuk aktibatu ez izana eta/edo sare-konfigurazioak funtzionalitatea mugatzea. Jarri beti zure operadorearekin harremanetan ezaugarri horien erabilgarritasunaz eta funtzionalitateaz informatzeko. Produktuaren ezaugarri, funtzionalitate eta bestelako zehaztasun guztiak, eta erabiltzailearen eskuliburu honetako informazioa, eguneratutako informazioan oinarrituta daude, eta gaur egun zehatzenak dira inprimatzeko unerako. Motorolak, aurrez jakinarazi gabe, informazioa edo zehaztapenak aldatzeko eskubidea du.

MOTOROLA eta M logotipo estilizatua AEBetako Patenteen eta Marka Erregistratuen bulegoan daude erregistratuta. Bluetooth marka komertzialak haien jabearenak dira eta Motorola, Inc.-ek lizentziarekin erabiltzen ditu. Java eta Javan oinarritutako gainerako marka guztiak Sun Microsystems, Inc.-en marka komertzialak edo erregistratuak dira AEBetan eta beste herrialdeetan. Gainerako produktu- eta zerbitzu-izenak haien jabeen marka komertzialak dira.

© Motorola, Inc., 2005.

**Kontuz:** Motorolaren berariazko baimenik gabe telefonoan aldaketak eginez gero, erabiltzaileak gailua erabiltzeko eskubidea galtzen du.

Softwarearen egile-eskubideei buruzko ohartarazpen legala

Gida honetan azalduko Motorolaren produktuek Motorolaren edo hirugarrenen softwarea eduki dezakete, erdieroalezko memorietan edo bestelakoetan grabatuta, egilearen eskubideek babestuta. Estatu Batuetako eta beste herrialde batzuetako legeek Motorolari eta beste software-fabrikatzaileei eskubide berezi batzuk eman dizkiete egile-eskubideek babestutako softwareari buruz; besteak beste, software hori banatzeko edo erreproduzitzeko eskubideak. Horren arabera, egile-eskubideek babesten dituzten softwareak, Motorolaren produktuetan badaude, ezingo dira aldatu, banatu edo erreproduzitu, eta atzeranzko ingeniari eta ezingo zaie aplikatu legea kontuan hartuta. Gainera, Motorolaren produktuak erostea ez da hartu behar lizentziatzailearen zuzeneko edo inplikaziokoa, alegaziokoa edo bestelakoa, egile-eskubidetza edo Motorolaren edo beste software-fabrikatzaileen patente edo patenteen aplikaziotza. Erabilera arrunterako lizentzia bakarrik ematen du, ez erabilera esklusiboa eta eskubiderik gabea, produktua saltzetik inplizituki sortua.

Produktuen zehaztasunak eta funtzioak aurrez jakinarazi gabe alda daitezke; alabaina, ahal dela, sarri eguneratzen ditugu erabiltzaileen eskuliburuak, produktuan egindako aldaketak horietan ere ager daitezzen. Bestalde, nekez gertatuko den arren, zure eskuliburuaren bertsioak produktuaren oinarriko funtzio guztiak azaltzen ez baditu, jakinaraz diezaguzu. Eskuliburuaren bertsio eguneratuak Motorolaren web guneko erabiltzailearen atalean ere ikus ditzakezu: [www.motorola.com](http://www.motorola.com).

# Aurkibidea

---

<b>menuen mapa .....</b>	<b>7</b>
<b>Segurtasunari buruzko informazioa.....</b>	<b>9</b>
<b>EBren onespena.....</b>	<b>19</b>
<b>Birziklatzeko informazioa .....</b>	<b>21</b>
<b>oinarrizko gaiak.....</b>	<b>22</b>
eskuliburu honi buruz .....	22
SIM txartela .....	23
bateria .....	24
piztea eta itzaltzea .....	26
dei bat egitea .....	27
dei bati erantzutea .....	27
telefono-zenbaki bat gordetzea .....	27
gordetako telefono-zenbaki batera deitzea .....	29
zure telefono-zenbakia .....	29
<b>ezaugarri bereziak .....</b>	<b>30</b>
audio-erreproduzitailea .....	30
audio-erreproduzitaile digitala .....	32
argazkiak ateratzea eta bidaltzea .....	34
bideo bat grabatzea eta bidaltzea .....	36
bideokonferentzia.....	37
memoria-txartela.....	38
kable bidezko konexioak .....	41
Haririk gabeko Bluetooth® .....	42
<b>oinarrizko kontzeptuak.....</b>	<b>49</b>
pantaila .....	49
menuak.....	52

testua idaztea .....	54
bolumena .....	59
nabigazio-tekla .....	59
funtzio ugariko tekla .....	60
kanpoko pantaila .....	60
esku libreko entzungailua .....	61
kodeak eta pasahitzak .....	61
telefonoa blokeatzea eta desblokeatzea .....	62
<b>pertsonalizazioa .....</b>	<b>63</b>
txirrin-mota .....	63
ordua eta data .....	64
pantailaren hondoa .....	65
pantaila-babesak .....	65
gaiak .....	66
pantailaren itxura .....	67
erantzuteko aukerak .....	68
<b>deiak .....</b>	<b>69</b>
dei-alerta desaktibatzea .....	69
azken deiak .....	69
berriz markatzea .....	70
deia itzultzea .....	71
deia identifikatzea .....	71
larrialdi-deiak .....	72
ahots-postontzia .....	72
<b>beste zenbait funtzio .....</b>	<b>74</b>
dei-funtzio aurreratuak .....	74
telefono-aurkibidea .....	77
mezuak .....	82
pertsonalizazioa .....	86
deien iraupena eta kostua .....	88

esku libreko funtzioa .....	89
datu-deiak .....	91
sarea .....	92
antolatzaile pertsonala .....	92
segurtasuna .....	94
denbora-pasak eta jokoak .....	94
<b>SAR datuak .....</b>	<b>98</b>
<b>Aurkibidea .....</b>	<b>100</b>



# menuen mapa\*\*

## menu nagusia

### **Cámara**

### **Herramientas**

- SIMToolkit\*
- Calculadora
- Calendario
- Alarma
- Serv. Marcación
  - Marcación Fija \*
  - Marcación Rápida
- Lista Activación

### **Timbres**

- Tipo
- Detalle

### **Aplicaciones**

### **Multimedia**

- Temas
- Cámara
- Imágenes
- Sonidos
- Vídeos
- Cámara de Vídeo

### **Opciones WAP**

- WAP
- Favoritos
- Pag. Almacenadas
- Histórico
- Ir a URL
- Config. Navegador
- Perfiles WAP \*

### **Mensajes**

- Nuevo
- Buzón de Voz
- Bandeja Entrada
- Nueva Postal \*
- Enviara Mi Album\*
- Mensajes Email \*
- IM \* <sup>7</sup>
- Mensajes Navegador
- Servicios Información \*
- Bandeja Salida
- Borradores
- Plantillas

### **Agenda**

### **Ultimas Llamadas**

- Llamadas Recibidas
- Llamadas Realizadas
- Bloc de Números
- Tiempo de Llamadas \*
- Coste Llamada \*

### **Configuración**

- (ikus hurrengo orrialdea)

### **Bluetooth**

- Dispositivos Audio
- Histórico Dispositivos
- Configurar

\* aukerako funtzioak

\*\* Hori da menu nagusiaren banaketa estandarra. Telefonoaren aukerak sare-zerbitzu erabilgarrien edo operadore bakoitzak konfiguratzeko moduaren arabera alda daitezke.

## konfigurazio-menua

### Personalización

- Pantalla Principal
- Menú Principal
- Interfaz
- Saludo Inicial
- Fondo Pantalla
- Salvapantallas
- Marcación Rápida

### Conectividad

- Bluetooth
- Sincronizar
- Configurar USB

### Desvío Llamadas \*

- Llamadas de Voz
- Videollamadas
- Cancelar Todo
- Estado Desvío

### Llamada Entrante

- Contador Tiempo
- Configurar Coste \*
- Mostrar Mi Número
- Opciones Respuesta
- Llamada en Espera
- Alerta Mensaje

### Configuración Inicial

- Hora y Fecha
- Marcación Rápida
- Remarcación
- Pantalla en Espera
- Iluminación
- Desplazamiento
- Idioma
- Ahorro Batería
- Contraste
- Tonos DTMF
- Reiniciar
- Borrado General

### Estado Teléfono

- Mis Números
- Información  
Crédito/Disponible \*

- Línea Activa \*
- Nivel Batería
- Almacenamiento
- Información SW

### Manos Libres

- Respuesta Automática
- Opciones Timbre
- Marcación por Voz

### Kit de Coche

- Respuesta Automática
- Manos Libres
- Retrasar Apagado
- Tiempo de Carga

### Modo Avión

- Modo Avión
- Mensaje al Encender

### Red

- Red Nueva
- Configuración
- Redes Disponibles
- Mi Lista de Redes \*
- Tono Servicio
- Tono Llam. Perdida

### Seguridad

- Bloqueo Teléfono
- Bloqueo Aplicación
- Marcación Fija \*
- Bloqueo Llamada \*
- Cambiar PIN
- Contraseñas Nuevas
- Gestor Certificados \*

### Configuración Java

- Sistema Java
- Borrar Aplicaciones
- Vibración
- Volumen
- Prioridad\*
- Iluminación
- Aplicación Fondo \*
- IPDNS\*

\* aukerako funtzioak

# Informazio orokorra eta segurtasunari buruzkoa

---

ERABILERA SEGURUARI ETA ERAGINKORRARI BURUZKO INFORMAZIO GARRANTZITSUA. IRAKURRI INFORMAZIO HAU TELEFONOA ERABILI AURRETIK.<sup>1</sup>

## Irrati-maiztasuneko (IM) energiarekiko esposizioa

Zure telefonoak transmisore eta hartzaile bana ditu. Piztuta dagoenean, IM energia jasotzen eta transmititzen du. Telefono bidez komunikatzen zarenean, zure deiaz arduratzen den sistemak zure telefonoak transmititzen duen potentzia-maila kontrolatzen du.

Motorola telefonoa bereziki diseinatuta dago gizakiak IM energiaren eraginpean egoteari buruz herrialde bakoitzean dauden legeak betetzeko.

## Funtzionamenduari buruzko neurriak

Telefonoak behar bezala funtziona dezan eta gizakiak jasotzen duen IM energiaren eragina dagokien arauetan proposatutako zuzentarauen barruan dagoela bermatzeko, jarraitu beti hurrengo jarraibideei.

Kanpoko antena zaintzea

Zure telefonoak kanpoko antena badu, erabili Motorolak emandako edo homologatutako antena bakarrik. Baimendu gabeko antenek, aldaketek edo erantsiek telefonoan kalteak eragin ditzakete eta/edo herrialde bakoitzean ezarritako legeak urra daitezke.

EZ eutsi kanpoko antenari telefonoa ERABILTZEN ari zarenean. Kanpoko antenari eusteak deiaren kalitatean eragin dezake, eta telefonoak behar baino potentzia-maila handiagoan funtzionatzea eragin dezake.

## Telefonoa erabiltzea

Deiak egitean edo jasotzean, erabili telefonoa telefono finakoak erabiltzen dituzun bezalaxe.

## Erabilera, unitatea soinean daramazula: Ahots-komunikazioa

IM energiaren eraginaren jarraibideekin lotutako hitzarmenak betetzeko, telefonoa soinean baduzu ahots-komunikazioa egiten ari zarela, jarri beti telefonoa Motorolak telefono mugikor horrentzako emandako edo homologatutako euskarri, zorro, kutxa edo tresna batean, holakorik izanez gero. Motorolak homologatutako osagarriak erabiltzen ez badituzu, IM energiaren eraginari buruzko zuzentarauek ezarritako mugak gaindi daitezke.

Motorolak homologatutako edo emandako gorputz-osagarriren bat erabiltzen ez baduzu eta telefono mugikorra normal erabiltzeko posizioan ez baduzu, ziurtatu telefonoa eta antena gorputzetik gutxienez 2,5 cm-ko distantzian daudela transmititzen ari denean.

## Datuak erabiltzea

Telefonoaren datu-funtzioren bat erabiltzen baduzu, kable-osagarriarekin edo hori gabe, jarri telefono mugikorra eta antena gorputzetik gutxienez 2,5 cm-ra.

## Homologatutako osagarriak

Motorolak homologatu gabeko osagarriak erabiltzeak –bateriak, antenak eta estalki aldagarriak barne, baina mugatu gabe– IM energiaren eraginaren arauetan ezarritako mugen gainetik egotea eragin dezake. Motorolak homologatutako osagarrien zerrenda bat topa dezakezu [www.motorola.com](http://www.motorola.com) web orrian.

## IM energia: interferentziak eta bateragarritasuna

**Oharra:** ia gailu elektronikoz guztiak izan ditzakete interferentziak kanpo-iturrietako IM energiarekin, ongi babestuta ez badaude eta IM energiarekiko bateragarritasuna eskaintzeko diseinatuta edo konfiguraturata ez badaude. Batzuetan, telefonoak interferentziak eragin ditzake.

**Oharra:** gailu honek FCC araudiaren 15. atala betetzen du. Erabili ahal izateko bi baldintza hauek bete behar ditu: (1) gailu honek ez du interferentzia kaltegarriarik sortu behar eta (2) jasotzen duen edozein interferentzia onartu behar du, nahi ez den funtzionamendua eragin dezaketenak barne.

## Eraikinak eta instalazioak

Itzali telefonoa hala adierazten duten oharrak edo kartelak dauden lekuetan. Leku horiek kanpoko IMen energiarekiko sentikorrek diren ekipoak erabiltzen dituzten ospitaleak edo instalazio sanitarioak izan daitezke.

## Hegazkinak

Itzali gailu mugikorra tripulazioak hala adierazten duen guztietan. Gailuak hegaldietarako moduren bat edo antzeko ezaugarriren bat badu, kontsultatu tripulazioarekin hura erabil dezakezun jakiteko. Gailuak telefonoa bakarrik pizteko funtzioaren bat badu, desaktibatu hegazkinera igo aurretik edo gailu mugikorrak erabiltzea mugatuta dagoen leku batera sartu aurretik.

## Gailu medikoak

### Taupada-markagailua

Taupada-markagailuen fabrikatzaileek gomendatzen dute telefono mugikorraren eta taupada-markagailuen artean, gutxienez, 15 zentimetroko distantzia uztea.

Taupada-markagailua duten pertsonek:

- Telefonoa BETI taupada-markagailutik 15 zentimetroko distantzian eduki beharko dute, piztuta dagoenean.
- INOIZ EZ dute telefonoa bular pareko poltsikoan eraman behar.
- Taupada-markagailuaren kontrako aldeko belarria erabili beharko dute interferentziak izateko aukera murrizteko.
- Telefonoa berehala itzali behar dute arrazoiren batengatik interferentziak sortzen ari dela susmatzen badute.

## Entzuteko gailuak

Haririk gabeko zenbait telefono digitalek entzuteko zenbait gailurekin interferentziak sor ditzakete. Interferentzia-mota horietakoak sortuz gero, mesedez kontsultatu entzuteko gailuaren fabrikatzailearekin arazoari alternatibaren bat aurkitzeko.

## Beste gailu mediko batzuk

Beste gailu medikoren bat erabiltzen baduzu, kontsultatu gailuaren fabrikatzailearekin IM energiaren aurka behar bezala babestuta dagoen ala ez jakiteko. Agian zure sendagileak lagunduko dizu informazio hori eskuratzen.

## Gidatu bitartean erabiltzea

Kontsultatu gidatu bitartean telefono mugikorrek erabiltzeari buruzko zure herrialdeko legeak. Bete itzazu beti.

Gidatu bitartean telefonoa erabiltzen duzunean, gogoan izan hau:

- Kontuz gidatu eta jarri arreta osoa errepidean. Batzuetan, telefonoa erabiltzeak distraitu zaitzake. Eten ezazu deia, arretaz gidatu ezin baduzu.
- Erabilgarri badago, erabili esku libreko funtzioa.
- Aldendu errepidetik edo gelditu ibilgailua dei bat egin edo jaso aurretik, egoerak hala eskatzen badu.

“Telefono mugikorren zako segurtasunari buruzko aholkuak” atalean, hau da, eskuliburu honen amaieran edo Motorolaren web orrian, arduraz gidatzeko jardunbide onenak kontsulta ditzakezu: [www.motorola.com/callsmart](http://www.motorola.com/callsmart).

## Erabilerari buruzko oharrak

### Airbaga duten ibilgailuentzat

Ez jarri telefonoa airbagaren gainean edo airbaga irekitzen den lekuan. Airbagak indar handiz puzten dira. Telefonoa airbaga puzten den lekuan badago eta airbaga irekitzen bada, telefonoa indar handiz atera daiteke eta ibilgailuko bidaiariei kalte larriak eragin diezazkieke.

### Zerbitzuguneak

Egin kasu irrati-maiztasuneko ekipoen erabilerari buruzko zerbitzuguneetako seinaleei. Langile baimenduek hala adieraziz gero, itzali telefono mugikorra.

### Lehergaiak egon daitezkeen inguruak

Deskonektatu mugikorra lehergaiak egon daitezkeen inguruetara sartu aurretik.

Ez utzi, instalatu edo kargatu bateriarik inguru horietan. Lehergaiak egon daitezkeen inguru batean txinpartak sortzen badira, leherketaren bat edo suteraren bat gerta daiteke, eta pertsoneri lesioak sor diezazkieke, baita heriotza ere.

**Oharra:** besteak beste, erregaiak hartzeko guneak –adibidez, itsasontzien bizkarraren azpiko guneak–, erregaiak edo produktu kimikoak biltegitratzeko edo garraiatzeko instalazioak eta airean substantzia kimikoak edo partikulak –hala nola, erregai-hautsa edo metal-hautsakñ dauden eremuak dira aipatutako horiek (leherketak gertatzeko arriskua dutenak). Lehergaiak egon daitezkeen guneak gehienetan adierazita daude, baina ez beti.



## Detonazioguneak eta detonagailuak

Detonazio-eragiketekin interferentziak saihesteko, itzali telefonoa detonagailuetatik gertu zaudenean, detonaziogunean zaudenean edo "Itzali gailu elektronikoak" oharra dagoen eremuetan zaudenean. Egin kasu seinale eta jarraibide guztiei.

## Hondatutako produktuak






Telefonoa edo bateria uretan sartu bada, zulatu egin bada edo erortzean kolpe handi bat jaso badu, erabili aurretik eraman Motorolak baimendutako laguntza teknikoko zentro batera han hondatuta dagoen ala ez zehatz dezaten. Ez saiatu lehortzen kanpoko bero-iturri baten bidez, adibidez, mikrouhinaren bitartez.

## Bateriak eta kargagailuak

Bateriek kalte materialak eta lesioak eragin ditzakete –erredurak, adibidez–, material eroaleren batek (hala nola, bitxiak, giltzak edo kate metalikoak) terminalak ukitzen baditu. Material eroaleak zirkuitu elektrikoa itxi dezake (zirkuitulaburra) eta gehiegi berotu. Kontuz ibili kargatutako bateria bat erabiltzean, batik bat, patrikan, eskuko poltsan edo objektu metalikoak dituen beste nonbait sartzean. **Erabili beti Motorola Original™ bateriak eta kargagailuak.**

**Kontuz:** kalte pertsonalik egon ez dadin, ez bota bateria sutara.

Bateriak, kargagailuak edo telefonoak ikurrak izan ditzakete. Hau da ikurren esanahia:

<b>Ikurra</b>	<b>Definizioa</b>
	Segurtasun-informazio garrantzitsua adierazten du.
	Telefonoa edo bateria ez da sutara bota behar.
	Beharbada bateria edo telefonoa tokiko legeen arabera birziklatu behar da. Kontsultatu tokiko agintari eskudunekin informazio gehiago lortzeko.
	Bateria edo telefonoa ez dira zakarretara bota behar.
	Telefonoak litio-ioizko bateria du.

## Itotzeko arriskua

Telefonoak edo haren osagarriak pieza desmuntagarriak izan ditzakete, eta horiekin ito egin daitezke haur txikiak. Ez utzi telefonoa eta haren osagarriak haur txikien eskueran.

## Beirazko osagaiak

Baliteke gailu mugikorreko osagai batzuk beiraz eginda egotea. Beira hori hautsi egin daiteke produktua gainazal gogor batera erortzen bada edo kolpe handia hartzen badu. Beira apurtzen bada, ez ukitu eta ez saiatu kentzen. Ez erabili gailu mugikorra zerbituz-zenetro gaitu batean aldatu arte.

## Epilepsia-krisiak edo zorabioak

Pertsona batzuek epilepsia-krisiak edo zorabioak izan ditzakete keinuka dauden argien eraginpean, hala nola, telebista ikustean edo bideojokoetan aritzean. Litekeena da epilepsia-krisi edo zorabio horiek sekula horrelakorik gertatu ez zaien pertsoneri ere gertatzea.

Epilepsia-krisirik edo zorabiorik izan baduzu edo zure familian bateren batek izan badu, galdetu medikuari mugikorrarekin bideo-jokoetan jolastu edo argi keinukarien funtzioa erabili baino lehen (argi keinukarien funtzioa ez dago produktu guztietan).

Gurasoek kontrolatu egin behar dituzte seme-alaben telefonoko bideo-jokoen erabilerak edo argi keinukarien aukerak. Sintoma hauetakoren bat duen pertsona orok erabiltzeari utzi eta medikuarengana joan behar du: konbultsioak, begien edo muskuluen mugimendu konbultsiboak, konortea galtzea, oharkabeko mugimenduak edo desorientazioa.

Sintoma horiek gertatzeko aukerak mugatzeko, hartu neurri hauek:

- Ez jolastu edo ez erabili argi keinukariak dituen aukerarik nekatuta edo loguratuta bazaude.
- Hartu atsedan, gutxienez, orduko 15 minutuan.
- Jolastu argiak piztuta dauden lekuetan.
- Jolasteko, ipini pantaila begietatik ahalik eta urrunen.

## Errepikatzen diren mugimenduengatik kalteak

Errepikatzen diren ekintzak egitean, hala nola teklak sakatzea edo testu-karaktereak sartzea hatzez, batzuetan, eskuetako, besoetako, sorbaldako, lepoko edo gorputzeko beste ataletako mina senti daiteke. Segitu jarraibide hauei tendinitisa, karpoko tunelaren sindromea edo hezurretako edo muskuluetako beste lesiorik ez izateko:

- Hartu atsedean, gutxienez, jokaturako ordu bakoitzeko 15 minutu.
- Jolasean zabiltzala eskuetan, eskumuturretan edo besoetan nekea edo mina sentitzen baduzu, gelditu eta hartu atsedean hainbat orduz berriz jolasten hasi baino lehen.
- Jolasean ari zarela edo jolastu ondoren, oraindik ere, eskuak, eskumuturrak edo besoak minduta badituzu, ez jolastu gehiago eta galdetu medikuari.

1. Dokumentu honetako informazioak 2005eko urtarrilaren 28ra arte argitaratu diren erabilera-eskuliburuetan dagoen segurtasunari buruzko informazio orokorra ordeztzen du.

# Europako Batasuneko jarraibideekiko adostasun- deklarazioa

---



**MOTOROLA**

ADOSTASUN-DEKLARAZIOA

1890/2000 araudia, 2005eko azaroaren 20koa

Erreferentzia

ILV012/05/356393/D

Guk –Motorola Inc, US Highway N 45, IL 60048, AEB– gure erantzukizunaren baldintzapean aitortzen dugu produktu honek

Izena/Mota

V3x

Deskribapena

WCDMA2100 MHz, GSM 900/1800/1900 MHz.

UMTS telefono mugikorra, A2DP Bluetooth-arekin.

Oharra

betetzen dituela

- bete beharreko baldintzak eta 1999/5/EE zuzentarauko gainerako xedapen garrantzitsu guztiak
- Europako Batasuneko gainerako zuzentarau guztiak

IMEI: 350034/40/394721/9

**CE0168**

Type:MC2-41H14

**Produktuaren  
onarpen-zenbakia**

Aurreko taulan Produktuaren Onarpen Zenbakiaren ohiko adibide bat ikus daiteke.

Produktu honek betetzen ditu arau-dokumentu edo -estandar hauek, batez ere, zuzentarauaren 3. artikuluko baldintza espezifikoak:

3.1.a artikulua	EN50360:2001, EN60950:2000
3.1.b artikulua	EN 301 489-01 V1.4.1: 08.2002 EN 301 489-17 V1.1.1: 09.2000 EN 301 489-07 V1.2.1: 08-2002
3.2 artikulua	ETSI EN 301 511 V9.0.2 EN 300 328-2 V1.2.1
10 artikulua	Hitzarmenaren adostasun-prozesua eta V. eranskina goian aipatutako zuzentarauaren oinarriko baldintza guztiei aplikatu zaizkie, BABT0168 erabiliz atal jakinarazi gisa.

Lars S. Nielsen  
Zuzendaria  
Motorola GmbH  
Husumerstrasse 251  
D242941 Flensburg  
Alemania  
Telefonoa: +49461 803 0  
Faxa: +49461 803 1829  
h.el.: rtte@motorola.com



(ordezkari baimenduaren sinadura)

Motorola Inc.-en idatzizko onarpenik gabe, dokumentu honek ez du baliorik izango homologazio- edo inportazio-froga gisa.

# Birziklatzea ingurumena zaintzeko

---



Ikur hau Motorolaren produktu batean ikusten baduzu, ez bota etxeko zakarretara.

## Telefono mugikorrek eta osagarriak birziklatzea

---

Ez bota telefono mugikorrek eta osagarri elektronikoak, adibidez, kargagailuak eta entzungailuak, etxeko zakarretara. Herrialde batzuetan badaude ekipo elektronikoak biltzeko sistemak. Jarri harremanetan zure herrialdeko agintariekin xehetasun gehiago eskuratzeko. Biltzeko sistema horiek erabilgarri ez badaude, nahi ez dituzun telefono mugikorrek eta osagarri elektronikoak itzuli zure herrialdeko Motorolaren edozein zerbitzu-zentrora.



# oinarrizko gaiak



---



## eskuliburu honi buruz

Horrela aurki dezakezu telefonoan menu-funtzio bat:

**Bilatzeko:** Sakatu  >  **Ultimas Llamadas** > **Llamadas Realizadas**

Adibidean ikus daitekeenez, pantaila nagusitik *erdiko tekla*  sakatu behar da menua irekitzeko. Nabarmendu eta hautatu  **Ultimas Llamadas**; gero, nabarmendu eta hautatu **Llamadas Realizadas**.

Sakatu *nabigazio-tekla*  menu-funtzio bat nabarmentzeko. Sakatu  *erdiko tekla* nabarmendutako menu-funtzioa hautatzeko.

ikurrak	
	Horrek esan nahi du funtzioa sare-motaren edo harpidetzaren araberakoa dela, eta baliteke eremu guztietan erabiltzerik ez izatea. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure operadorearekin.
	Horrek esan nahi du funtzioak aukerako osagarri bat behar duela.



# SIM txartela


**Kontuz:** ez tolestu eta ez urratu SIM txartela. Elektrizitate estatikotik, uretik eta hautsetik urrun eduki.

**SIM txartel bat instalatu edo kendu baino lehen, itzali telefonoa eta atera bateria.**


*SIM* txartelak informazio pertsonala du, adibidez, telefono-zenbakia eta telefono-aurkibideko sarrerak. Ahots-postontziaren, testu-mezuen eta Internetarako sarbidearen konfigurazioa ere eduki dezake. SIM txartela beste telefono batean ipintzen baduzu, zure telefono-zenbakia erabiliko du.

Memoria-txartela jartzeko eta erabiltzeko, ikus 38. orrialdea.

1




2



# bateria

## bateria instalatzea




## bateria kargatzea

Bateria berriak ez dira guztiz kargatuta egoten.

Bateria-kargagailua telefonoarekin eta elektrizitate-hartunearekin konektatu. Baliteke bateria berehala ez kargatzen hastea. Amaitzean, pantailan **Carga Completa** bistaratuko da.

**Iradokizuna:** egon lasai, bateria ezin da gehiegi kargatu. Bateriak errendimendu hobe izango du, hainbatetan kargatu eta deskargatu ondoren.



Gailu honekin emandako bateria-kargagailua Motorolaren 3G telefono mugikorrekin erabiltzeko diseinatuta dago. Baliteke beste kargagailu batzuek denbora gehiago behar izatea bateria kargatzeko edota kargatu bitartean egindako deietan erroreak eragiteko.

## bateriari buruzko gomendioak

Bateriaren iraupena sarearen, estalduraren, giro-tenperaturaren eta erabiltzen dituzun funtzioen eta osagarrien arabera dago.

- Erabili beti Motorolaren jatorrizko bateria eta kargagailuak. Telefonoaren bermeak ez ditu bere gain hartzen Motorolak homologatu gabeko bateriak eta kargagailuak erabiltzeagatik sortutako kalteak.
- Bateria berriek edo denbora askoan biltegian egon direnek, agian, denbora gehiago beharko dute kargatzeko.
- Bateria kargatzean, saiatu giro-tenperaturan izaten.
- Bateria denbora luzean erabili behar ez baduzu, jaso deskargatuta leku fresko, lehor eta ilunean, adibidez, hozkailuan.
- Ez eduki sekula bateria  $-10\text{ }^{\circ}\text{C}$ -tik beherako eta  $45\text{ }^{\circ}\text{C}$ -tik gorako tenperaturan. Ez utzi telefonoa ibilgailuan, hura uzten duzunean.



- Normala da bateriak gastatuz joatea eta kargatzeko gero eta denbora gehiago behar izatea. Bateriaren iraupena asko jaitsi dela ohartu bazara, agian berri bategatik ordeztzeko unea izango da.





Bateria botatzeko, jarri harremanetan zure herriko hondakinak biltzeko gunearekin.


**Oharra:** ez bota inoiz bateriak sutara, lehertu egin baitaitezke.

Telefonoa erabili aurretik, arretaz irakurri eskuliburu honetako “Informazio orokorra eta segurtasuna” atalean dagoen segurtasunari buruzko informazioa.

## piztea eta itzaltzea

**Kontuz:** telefono batzuek PIN kodea eskatuko dizute, pizterakoan. Hiru aldiz segidan okerreko PIN kodea sartzen baduzu, SIM txartela desaktibatu egingo da eta telefonoak **SIM Bloqueado** mezua bistaratuko du. Jarri harremanetan operadorearekin.

Telefonoa pizteko, sakatu  segundo batzuek edo pantaila piztu arte. Eskatutakoan, sartu SIM txartelaren PIN kodearen 4 digituak eta/edo 6 digituko desblokeatze-kodea. Telefonoa itzaltzeko, luze sakatu  2 segundoz.



## dei bat egitea

Sartu telefono-zenbaki bat, eta sakatu  dei bat egiteko.

“Esekitzeko”, itxi tapa edo sakatu .

Bideokonferentziak egiteko, ikus 37. orrialdea

## dei bati erantzutea

Telefonoak jotzean edo dar-dar egitean, ireki tapa edo sakatu  erantzuteko.

Nahiago baduzu telefonoaren tapa irekitzean zuzenean erantzutea –erantzuteko botoia sakatu gabe–, joan Ajustes menura, hautatu **Llamada Entrante, Opciones Respuesta, Responder al Abrir** eta, azkenik, hautatu **Activado**.


“Esekitzeko”, itxi tapa edo sakatu .

## telefono-zenbaki bat gordetzea

**Agendan** telefono-zenbakiak gorde daitezke:

- 1 Sartu telefono-zenbakia pantaila nagusian.
- 2 Sakatu **Guardar** tekla.

Beharrezkoa bada, hautatu **[Nueva Entrada]**.

**3** Sartu telefono-zenbakiari dagozkion izena eta datuak. Nabarmendutako elementua hautatzeko, hautatu *erdiko tekla* .

**Iradokizuna:** pertsona batzuek telefono bat baino gehiago dituzte. Aurkibidean sarrera bat sortzean, hautatu **Más** izen berarekin beste zenbaki bat gordetzeko.

**4** Sakatu **Aceptar** tekla, zenbakia gordetzeko.

**Agenda**ko sarrera aldatzeko edo ezabatzeko, ikus 78. orrialdea.

Helbide elektronikoa bat gordetzeko, sakatu   **Agenda** >



**Nueva Entrada.** Idatzi kontaktu berriaren izena eta helbide elektronikoa informazioa.

**Oharra:** SIM txartelean ere gorde daitezke telefonoaren sarrerak. SIM (USIM) txartelean gordetako sarrerak ezin dute izan informazio gehiago, adibidez, **Dirección URL** eta **Notas**. SIM txartelaren sarrerako ikusteko, ireki aurkibidea eta sakatu **Opciones** > **Ver Contactos SIM**. Gero, SIM txartelean sarrera berria sortzeko, sakatu **Opciones** > **Crear Nuevo**.

# gordetako telefono-zenbaki batera deitzea



**Bilatzeko:**   **Agenda**

**1** Nabarmendu aurkibideko sarrera.



**Zuzeneko sarbidea:** aurkibidean, sakatu tekla numerikoak sarrerari dagozkion lehenbiziko letrak sartzeko. Halaber,  eta  saka ditzakezu normalean erabiltzen dituzun sarrerak edo beste kategoria batzuetako sarrerak ikusteko.

**2** Sakatu  sarrera horretara deitzeko.

## zure telefono-zenbakia

Pantaila nagusian, norberaren telefono-zenbakia bistaratzeko, sakatu  .

**Iradokizuna:** zure telefono-zenbakia ikusi nahi duzu hitz egiten ari zarela? Sakatu **Opciones > Mis Números.**

SIM txartelean gordetako izena eta telefono-zenbakia alda ditzakezu. Pantaila nagusian, sakatu  , hautatu sarrera bat eta, gero, sakatu **Cambiar** tekla. Zure telefono-zenbakia zein den ez badakizu, jo zure operadorearengana.



# ezaugarri bereziak




---


Deiak egiteaz eta jasotzeaz gain, zure telefonoak gauza asko egiteko aukera ematen dizu.

## audio-erreproduzitzailea

Telefonoak abesti-fitxategiak erreproduzi ditzake:

**Bilatzeke:** Sakatu  >  **Multimedia** > **Sonidos** eta hautatu erreproduzitu nahi duzun fitxategia.

Sakatu  gorantz, erreproduzitzeko edo etenaldia egiteko. Sakatu  beherantz, erreprodukzioa geldiarazteko. Sakatu  eskuinera edo ezkerrera, aurrera edo atzera egiteko.



Telefonoan abestiak deskargatzeko, ikus 95. orrialdea.  
Fitxategiak telefonoaren eta ordenagailuaren artean trukatzeko, ikus 39. orrialdea.

**Oharra:** telefonoak ezin ditu erreproduzitu 192 kb/s baino bit gehiagoko abiadura duten MP3 fitxategiak. Fitxategi horietako bat deskargatzen edo erreproduzitzen saiatzen bazara, baliteke telefonoak errorea bistaratzea edo, bestela, fitxategia ezabatzeko eskatuko dizu.



# musika erreproduzitzea, telefonoa itxita dagoela

Telefonoa itxi dezakezu, musika entzuten ari zarenean. Telefonoa itxita dagoenean, kanpoko pantailan artista, titulua eta abestiaren denbora bistaritzen dira. Sakatu bolumen-teklak erreprodukzio-bolumena doitzeko.

Sakatu **funtzio ugariko tekla** audio-erreproduzitzailearen aginteak bistaratzeko:














<b>audio-erreproduzitzailearen aginteak kanpoko pantailan</b>	
<b>abesti bat erreproduzitzea edo etetea</b>	Sakatu funtzio ugariko tekla.
<b>hurrengo abestira joatea</b>	Sakatu bolumena handitzeko tekla.
<b>aurrerapen azkarra</b>	Luze sakatu bolumena handitzeko tekla.
<b>aurreko abestira joatea</b>	Sakatu bolumena txikitzeo tekla.
<b>atzera eramatea</b>	Luze sakatu bolumena txikitzeo tekla.
<b>aginteak ixtea</b>	Luze sakatu funtzio ugariko tekla.

Aginteak itxi egingo dira, 5 segundoz erabiltzen ez badira.




# audio-erreproduzitzaile digitala


Telefonoak abesti-fitxategiak erreproduzi ditzake:

**Bilatze**ko: Sakatu  >  **Aplicaciones > Dispositivos Audio**

Sakatu  gorantz edo beherantz menuan batetik bestera joateko, eta  aukera bat hautatzeko. Erabili  aukera batetik bestera joateko. Sakatu  aukera bat hautatzeko. Sakatu  tekla egokia, audio-erreproduzitzailearen funtzio bat hautatzeko: erreproduzitu , eten , gelditu , aurrekoa , hurrengoa , errepikatu ,  ausaz eta bistaratzaila aktibatuta/desaktibatuta .

**Iradokizuna**: Abesti bat hautatzean, Opciones hauta dezakezu abestia berriz entzuteko edo, bestela, Orden Aleatorio hauta dezakezu.

Sakatu  erreproduzitzailea gelditzeko, edo sakatu  >  **Multimedia > Sonidos** eta hautatu fitxategi bat.




Sakatu  gora edo behera, aukera bat nabarmentzeko:

aukerak	
<b>Listas de Reproducción</b>	Abestiak erreproduzitzeko zerrenda bat sortzeko edo erreproduzitzeko.
<b>Artistas</b>	Artista bat aukeratzeko, ondoren haren abestiak bistaratu edo erreproduzitzeko.
<b>Discos</b>	Album bat aukeratzeko, ondoren haren abestiak bistaratu edo erreproduzitzeko.

<b>aukerak</b>	
<b>Canciones</b>	Kantak banaka bistartzeko eta erreproduzitzeko.  Oharra: telefonoko abesti guztiak <b>Canciones</b> zerrendan bistartzen dira. Abesti batzuek ez dute informaziorik gordeta (artista, diskoa, generoa), beraz, ez dira zerrenda horietan azaltzen.
<b>Géneros</b>	Musika-mota bat aukeratzeko, ondoren haren abestiak bistartu edo erreproduzitzeko.
<b>Ayuda</b>	Audio-erreproduzitzailea erabiltzeko jarraibideak ikusteko.
<b>Acerca de</b>	Audio-erreproduzitzailearen bertsioari buruzko informazioa bistartzeko.

Telefonoan abestiak deskargatzeko, ikus 95. orrialdea. Fitxategiak telefonoaren eta ordenagailuaren artean trukatzeko, ikus 39. orrialdea.

**Oharra:** telefonoak ezin ditu erreproduzitu 192 kb/s baino bit gehiagoko abiadura duten MP3 fitxategiak. Fitxategi horietako bat deskargatzen edo erreproduzitzen saiatzen bazara, baliteke telefonoak errorea bistartzea edo, bestela, fitxategia ezabatzeko eskatuko dizu. Metadatuaren informazioa **ez** da onartzen **MP4** formatua duten fitxategientzat.

Telefonoak soinu-erreproduzitzaile bat ere badu, abestiak eta doinuak erreproduzitzeko. Baina, horretan ezin dira gorde erreprodukzio-zerrendak eta abestien bestelako informazioa. Soinu-erreproduzitzailea erabiltzeko, sakatu   

**Multimedia > Sonidos** eta hautatu erreproduzitzeko fitxategia.



# argazkiak ateratzea eta bidaltzea

**Fokua:** fokatzeko etengailua erabil dezakezu, lehen planoan (📷) irudien fokatzea hobetzeko. Erabili (△) posizioa argazki arruntak ateratzeko.



Ateratako argazkiak bistartzeko, aldatzeko edo ezabatzeko, ikus 94. orrialdea.

- 1 Sakatu (📷) kameraren bisorea bistartzeko.




2 Sakatu *erdiko tekla*  bisoreko argazkia ateratzeko. Aukera hauek dituzu:

- Sakatu **Opciones** tekla, argazkia gordetzeko edo ezabatzeko.

**Opciones > Enviar** sakatzen baduzu, irudia Bluetooth® konexio baten bidez inprima dezakezu (ikus 45. orrialdea).

- Sakatu **Enviar** tekla, argazkia mezu batean bidaltzeko.

Argazkia atera baino lehen, **Opciones** saka dezakezu, kameraren menua irekitzeko:

aukerak	
<b>Ir a Imágenes</b>	Gordetako irudiak eta argazkiak ikusteko.
<b>Ir a Modo Vídeo</b>	Bideo-kamerara aldatzeko.
<b>Visión Interna/ Visión Externa</b>	Kameraren ikuspegia aldatzeko: zu fokatzeko modua ( <b>Visión Interna</b> ) edo zure ikuspegitik fokatzeko modua ( <b>Visión Externa</b> ) jartzeko.
<b>Cambiar Dispositivo</b>	Irudiak telefonoan eta memoria-txartel batean gorde eta bistaratu nahi dituzun hautatzeko. 
<b>Activar Flash/ Desactivar Flash</b>	Kameraren argia pizteko edo itzaltzeko. <b>Oharra:</b> argia piztuta geratzen da argazkia atera, telefono-dei bat jaso edo <b>Desactivar Flash</b> hautatu arte.
<b>Configurar Cámara</b>	Argazkiaren konfigurazioa doitzeko konfigurazio-menua irekitzeko.

## aukerak


### Espacio Libre

Memorian zenbat leku libre dagoen erakusteko.

**Oharra:** eransten dituzun edukiak (adibidez, doinuak edo jokoak) *erabiltzailearen memorian* gordetzen ditu telefonoak. Operadoreak hainbat gauza gorde ditzake memoria horretan, telefonoa jaso baino lehen.

## bideo bat grabatzea eta bidaltzea


Sakatu  >  **Multimedia** > **Cámara de Video** kameraren bisorea ikusteko.




**Vídeo** menua irekitzeko.

**Oharra:** grabatzen hasi aurretik bakarrik erabil daitezke zooma. Geratzen diren minutuak gutxi gorabeherakoak dira.

Bideoa mezu batean bidali nahi baduzu, iraupena MMSan ezarri behar da. Iraupena ezartzeko, sakatu **Opciones > Configurar > Duración del Vídeo**.




- 1 Sakatu *erdiko tekla*  bideoa bisorean grabatzen hasteko.
- 2 Sakatu **Parar** tekla, bideoa gelditzeko. Aukera hauek dituzu:
  - Sakatu **Opciones** tekla, aurretiko bista bat lortzeko, gordetzeko edo bideoa ezabatzeko.

Gordeta dagoen bideo bat pantaila nagusitik erreproduzitzeko, sakatu  **Multimedia > Vídeos > bideoaren izena**.
  - Sakatu **Enviar** tekla bideoa mezu batean bidaltzeko.

## bideokonferentzia

Bideokonferentzia ere baduen solaskide bati deitzen badiozu, elkar ikusteko aukera izango duzue hitz egin bitartean.

### bideokonferentzia bat egitea

- 1 Sartu telefono-zenbakia eta sakatu  bideokonferentziaren aurretiko bista ikusteko.
- 2 Sakatu  deia egiteko.
- 3 Deia amaitzeko, sakatu .

# memoria-txartela

Telefonoarekin, atera daitekeen memoria-txartel bat erabil dezakezu multimedia-elementuak (argazkiak, soinuak...) gordetzeko eta berreskuratzeko.




**Oharra:** Copyright-ekin babestutako fitxategi bat deskargatu eta memoria-txartelean gordetzen baduzu, memoria-txartela telefonoan sartuta dagoenean bakarrik erabili ahal izango duzu. Ezin dira bidali, kopiatu edo aldatu copyright-ekin babestutako fitxategiak.

## memoria-txartela instalatzea

- 1 Kendu bateriaren tapa.
- 2 Sakatu txartela euskarri metalikoaren gainean, dagokion tokian sartu eta klik egin arte.

**Memoria-txartela kentzeko,** sakatu klik egin arte. Pixka bat aterako da; beraz, lerratu erabat atera arte.



- 3 Ipini berriro bateriaren tapa.

## memoria-txartelaren informazioa bistaratzeko eta aldatzea

**Bilatzeke:** Sakatu  >  **Configuración > Estado Teléfono > Almacenamiento**

- 1 Sakatu  memoria-txartela nabarmentzeko.



- 2 Sakatu **Detalles** tekla, memoria-txartelaren informazioa bistartzeko. Eransten dituzun edukiak (adibidez, doinuak edo jokoak) *erabiltzailearen memoria*n gordetzen ditu telefonoak. Operadoreak hainbat gauza gorde ditzake memoria horretan, telefonoa jaso baino lehen.

### edo

Sakatu **Opciones Menú Dispositivo Almacen.** irekitzeko. Horrekin, memoria-txartela formateatzeko (**Formatear**) edo hari izena aldatzeko (**Renombrar**) aukera duzu.

## memoria-txartela ordenagailu bati konektatzea

Telefonoaren memoria-txartelera PC batetik sar zaitezke.

**Oharra:** telefonoa ordenagailura konektatuta dagoenean, memoria-txartela ordenagailu bidez bakarrik erabil daiteke.

### Telefonoan:

Sakatu  >  **Configuración > Conectividad > Configurar USB > Conexión Predetermin > Tarjeta Memoria.**

Ekintza horrek USB konexioa memoria-txartelerantz bideratzen du. Konektatu Motorolaren jatorrizko USB kablea telefonoaren osagarrien atakara eta ordenagailuaren USB ataka batera. Gero, egin urrats hauek:



### Ordenagailuan:

- 1 Ireki "Nire PCa" leihoa. Telefonoaren memoria-txartela "Disko aldagarria" ikono gisa ageri da.

- 2 Egin klik "Disko aldagarria" ikonoan, telefonoaren memoria-txartelean gordeta dauden fitxategietara sartzeko.
- 3 Fitxategiak memoria-txartelean gordetzeko, arrastatu eta ipini horrela: **MP3 fitxategiak**: > mugikorra > audioa  
**pantaila-babesak**: > mugikorra > irudia  
**pantaila-hondoak**: > mugikorra > irudia  
**bideoak**: > mugikorra > bideoa
- 4 Amaitzean, gailua kentzeko, hautatu sistemaren barran (ordenagailuko pantailaren beheko aldean) azaltzen den "Hardwarea segurtasunez erauzte" ikonoa. Gero, hautatu "USB biltegitratze masiboko gailuak" eta hautatu "Gelditu".
- 5 Hautatu "USB biltegitratze masiboko gailua" eta sakatu "Ados".

#### **Telefonoan:**

**Datos** lehenespenezko USB konexio gisa berriz ezartzeko, sakatu

 >  **Configuración** > **Conectividad** > **Configurar USB** > **Conexión**

**Predetermin** > **Conexión Datos**.

## eduki babestua gordetzea eta erabiltzea

Copyright-ekin babestutako fitxategi bat erreproduzitzen saiatzen bazara, baliteke lizentzia deskargatzeko eskatzea. Lizentzia batzuekin fitxategia ordu-kopuru edo egun-kopuru jakin batzuetan bakarrik erreproduzi daiteke. Ezin dira bidali, kopiatu edo aldatu copyright-ekin babestutako fitxategiak.

Adibidez, lizentzia batekin, deskargatutako fitxategiaren edukia 5 aldiz erreproduzitzeko aukera dago edo edukia 3 egunez erabiltzeko aukera dago (gero iraungiko baita).

Fitxategi bat deskargatzeko, ikus 95. orrialdea. Copyright-ekin babestutako fitxategi deskargatuak aktibatuzko:


**Bilatze**ko: Sakatu  >  **Herramientas > Lista Activación > fitxategi-mota > fitxategia**

Fitxategiaren **Estado, Tipo, Activación** eta **999 Restante** ikus ditzakezu.

## kable bidezko konexioak



Telefonoak USB ataka txiki bat du, ordenagailu batera konektatzeko eta datuak transferitzeko.



**Oharra:** baliteke Motorola Originalen jatorrizko laguntza-softwarea eta USB datu-kableak bakoitza bere aldetik saltzea.



Begiratu ordenagailua edo gailu eramangarria, zein hari-mota behar duten ikusteko. Konektatutako ordenagailuaren bidez **datu-deiak** egiteko, ikus 91. orrialdea.

## haririk gabeko Bluetooth®

Telefonoarekin haririk gabeko *Bluetooth* bidezko sinkronizazioa (*estekadura* edo *lotura* ere deitzen zaio) egin daiteke. Esku libreko kitaren funtzioa betetzen duen autorako Bluetooth kitaren edo entzungailu baten bidez sinkroniza dezakezu telefonoa. Bestalde, fitxategiak trukatzeko Bluetooth konexiorik onartzen ez duten telefonoekin edo ordenagailuekin sinkroniza dezakezu telefonoa.

**Oharra:** mugikorrak eta horien osagarriak erabiltzea debekatuta edo mugatuta egon daiteke toki batzuetan. Kontuan izan beti produktu hauek arautzen dituzten legeak eta erabilera-arauak.

**Bluetoothen segurtasuna ahalik eta handiena izan dadin**, sinkronizatu Bluetooth gailuak ingurune seguru eta pribatu batean beti.

## Bluetooth elikadura aktibatzea edo desaktibatzea

**Bilatzeko:** sakatu  >  **Bluetooth > Configurar > Energía > Activado**

**Oharra:** bateriaren iraupena luzatzeko, Bluetooth-a erabiltzen ez denean Bluetooth elikadura **Desactivado** moduan ezar dadin prozedura erabili behar duzu. Telefonoak ezingo du sinkronizatu beste gailu batzuekin Bluetooth konexioa **Activado** moduan ezartzen ez den arte; orduan, telefonoa berriz sinkronizatuko da gailuarekin.


# autorako esku libreko kit bat edo entzungailu bat erabiltzea

**Telefonoa esku libreko gailu batekin sinkronizatzen saiatu baino lehen,** egiaztatu gailua **aktibatuta eta prest** dagoela, *sincronización* edo *enlace* moduan (ikus gailu honen erabiltzailearen eskuliburua).

**Bilatzeko:** sakatu  >  **Bluetooth > Dispositivos Audio**  
> **[Buscar Dispositivos]**



Telefonoak dagokion tartean aurkitutako gailuen zerrenda bistaratuko du.

- 1 Nabarmendu zerrendako gailu bat eta sakatu .
- 2 Sakatu **Sí** edo **Aceptar** gailuarekin sinkronizatzeko.
- 3 Behar izanez gero, sartu gailuaren pasahitza (adibidez, **0000**) eta sakatu **Aceptar** tekla.

Telefonoa sinkronizatuta dagoenean, Bluetooth-aren  adierazlea azalduko da pantailan. Copyright-ekin babestutako fitxategi batzuk ezin dira erreproduzitu Bluetooth konexio baten bidez.

**Zuzeneko sarbidea:** Bluetooth konexioa aktibatuta dagoenean, telefonoa automatikoki sinkroniza daiteke lehen erabilitako esku libreko gailu batekin. Gailu hori piztu eta telefonotik hurbil jartzea besterik ez duzu. Dei batean edo soinu-fitxategi bat erreproduzitzen ari denean, **Opciones > Usar Bluetooth** saka dezakezu lehen erabilitako entzungailu bat edo gailu bat sinkronizatzeko.

**Iradokizuna:** ezin dugu jakin zer gailu erabiltzen ari den. Gailu bati buruzko informazio espezifikoa behar baduzu, ikus jarraibideak.

## fitxategiak beste gailu batera kopiatzea


Multimedia-fitxategia, aurkibideko sarrera, egutegiko gertaera edo Interneteko zuzeneko sarbidea kopia ditzakezu telefonotik ordenagailura edo beste gailu batera.



**Oharra:** ezin dira kopiatu copyright-ekin babestutako objektuak.

**Fitxategiak beste gailu batera kopiatzen saiatu baino lehen**, egiaztatu **aktibatuta dagoela** eta **prest dagoela** *detección* moduan (ikus gailuaren erabiltzailearen eskuliburua).

- 1 Telefonoan, nabarmendu beste gailuan kopiatu nahi duzun objektua.
- 2 Sakatu **Opciones** eta, gero, aukeratu:
  - **Copiar** multimedia-fitxategietarako.
  - **Compartir Entrada Agenda** aurkibideko sarreretarako.
  - **Enviar** egutegiko gertaeretarako.
- 3 Hautatu detektatutako gailu-izen bat edo **[Buscar Dispositivos]** fitxategia zein gailutan kopiatu nahi duzun bilatzeko.



**Oharra:** telefonoa Bluetooth gailu batera konektatutakoan, gailu horrek antzeko Bluetooth konexioak egin ahal izango ditu telefonoarekin. Pantailaren goiko aldean Bluetooth adierazlea  bistaratuko da, Bluetooth konexioa eginda dagoenean. Gailu baten sarbide-konfigurazioa aldatzeko, ikus 48. orrialdea.

## fitxategiak beste gailu batetik jasotzea

**Fitxategiak beste gailu batzuetatik jasotzen saiatu baino lehen**, egiaztatu telefonoaren Bluetooth konexioa **aktibatuta** dagoela (ikus 42. orrialdea).

- 1 Ipini telefonoa gailutik gertu eta bidali fitxategia gailutik.

Fitxategia bidaltzen duen gailuak eta telefonoak elkar identifikatzen ez badute, ipini telefonoa detektatzeko moduan, gailuak aurki dezan.

Sakatu  >  **Bluetooth > Configurar > Encontrarme**

- 2 Sakatu telefonoaren **Acceptar** tekla, beste gailuaren fitxategia onartzeko.

Telefonoak adieraziko dizu noiz amaitu den fitxategia transferitzeko prozesua. Dagokionean, sakatu **Guardar** tekla fitxategia gordetzeko.



## fitxategiak inprimagailu batera bidaltzea

Bluetooth bidezko sinkronizazioa erabil dezakezu irudi bat, mezu bat, aurkibideko sarrera bat edo egutegiko ikuspegi bat bidaltzeko telefonotik inprimagailu batera.


**Oharra:** A4 edo gutun-tamainako orrietan inprima daiteke. Beste tamaina batzuetan inprimatzeko, kopiatu objektua dagokion ordenagailuan eta hortik inprimatu. Ezin dira inprimatu **mezu-txantiloiak** edo aurkibideko **Banaketa-zerrendak**.



- 1 Telefonoan, nabarmendu inprimatu nahi duzun objektua eta, gero, sakatu **Opciones > Imprimir**. Egutegiaren kasuan, hila, astea edo eguna inprima ditzakezu.  
**Iradokizuna:** ikusteko aukera baduzu, inprimatzeko ere aukera izango duzu. Kamerarekin irudi bat atera ondoren, **Guardar** tekla sakatu eta **Imprimir y guardar** hauta dezakezu.
- 2 Erabiltzerik baduzu, hautatu beste objektu osagarri batzuk edo inprimatzeko beste aukera batzuk.
- 3 Hautatu **Impresoras** menuan azaltzen den identifikatutako inprimagailu-izen bat, edo **[Buscar Dispositivos]** objektua zein gailutara bidali nahi duzun bilatzeko.

## Bluetooth funtzio aurreratuak

Gailu batekin sinkronizatzen den unetik aurrera, gailu hori *identifikatuta* egongo da (ikus 43. orrialdea).




funtzioak	
<b>telefonoa beste gailu batzuetarako ikusgai jartzea</b>	Bluetooth gailu batek zure telefonoa aurkitzeko:  > <b>Bluetooth &gt; Configurar &gt; Encontrarme</b> 
<b>identifikatutako gailu batekin sinkronizatzea</b>	Esku libreko gailu identifikatu batekin telefonoa sinkronizatzeko:  > <b>Bluetooth &gt; Dispositivos Audio &gt; gailuaren izena</b> 



funtzioak	
<b>gailu batekiko sinkronizazioa bertan behera uztea</b>	<p>Nabarmendu gailuaren izena eta sakatu <b>Quitar</b> tekla.</p> 
<b>dei batean, entzungailu batera edo esku libreko gailu batera aldatzea</b>	<p>Dei batean, sakatu <b>Opciones &gt; Usar Bluetooth</b> identifikatutako entzungailu batera edo autorako kit batera aldatzeko.</p> <p>Telefonoa automatikoki konektatuko da, edo hautatzeko gailuen zerrenda bistaratuko da.</p> 
<b>soinu-fitxategiak erreproduzitzea identifikatutako entzungailu batean</b>	<p>Soinu-fitxategi bat erreproduzitzen ari denean, sakatu <b>Opciones &gt; Usar Bluetooth</b> identifikatutako entzungailu batera aldatzeko.</p> <p>Telefonoa automatikoki konektatuko da, edo hautatzeko gailuen zerrenda bistaratuko da.</p> <p>Copyright-ekin babestutako fitxategi batzuk ezin dira erreproduzitu Bluetooth konexio baten bidez.</p> 
<b>multimedia-objektua gailu batera mugitzea</b>	<p><b>Kontuz:</b> objektu bat mugitzen baduzu, telefonoko jatorrizko objektua <b>ezabatzen</b> da.</p> <p>Nabarmendu objektua, sakatu <b>Opciones &gt; Mover</b> eta aukeratu gailuaren izena.</p> 

## funtzioak

### gailuaren ezaugarriak aldatzea

 >  **Bluetooth > Histórico Dispositivos**   
Nabarmendu gailuaren izena eta sakatu **Cambiar**  
tekla.

**Oharra:** Baliteke **Acceso** konfigurazioak mugatzea gailu hori telefonoarekin konektatzeko modua Hainbat aukera dituzu: **Automático** (beti konektatu), **Preguntar Siempre** (konektatu baino lehen beti galdetu), **Solo una Vez** edo **No**.


### aukerak ezartzea

 >  **Bluetooth > Bluetooth > Configurar** 


# oinarrizko kontzeptuak

Ikus 1. orrialdea, telefonoaren oinarrizko diagrama ikusteko.

## pantaila


Telefonoa piztean azaltzen da pantaila nagusia. Pantaila nagusitik zenbaki bat markatzeko, sakatu zenbaki-teklak eta, gero, .

**Oharra:** pantaila nagusiaren itxurak ez du zertan behekoaren berdina izan behar, operadorearen arabera da.



*Funtzio-teklen etiketek* teklen uneko funtzioak adierazten dituzte. Funtzio-teklen kokapena ikusteko, ikus 1. orrialdea.

Pantaila nagusiko goiko aldean egoera-adierazle hauek bistara daitezke:



- 1 Estalduraren adierazlea** - Barra bertikalek sarearekin duten konexioaren estaldura adierazten dute. Ez duzu deiak egiterik edo jasotzerik izango edo azaltzen bada.
- 2 GPRSaren adierazlea** - Telefonoa abiadura handiko *General Packet Radio Service* (GPRS) sare-konexioa erabiltzen ari denean bistaritzen da. Adierazleek PDP ingurune aktiboa edo datu-pakete erabilgarriak bistaratuko dituzte.
- 3 Datu-adierazlea** - Konexioaren egoera bistaritzen du.



= datu-paketeen transferentzia segurua

= datu-paketeen transferentzia ez segurua

= aplikazio-konexio segurua

= segurua ez den aplikazio-konexioa

= CSD dei segurua

= CSD dei ez-segurua

= Bluetooth® konexioa aktibatuta

- 4 Desplazamendu-adierazlea** - Adierazten du telefonoa berea ez den sare-sistema bat bilatzen edo erabiltzen ari dela. Adierazleak hauek izan daitezke:



 = 2 G propioa



 = 2 G desplazamendu-egoera

 = 2,5 G lokala

 = 2,5 G desplazamendu-egoera


 = 3 G propioa

 = 3 G desplazamendu-egoera


- 5 Linea aktiboaren adierazlea** -  bistaratzen du dei bat aktibo dagoela adierazteko, edo  deiak desbideratzeko funtzioa aktibatuta dagoela adierazteko. Bi lineatako SIM txarteletarako adierazleak hauek izan daitezke:



 = 1 linea aktibatuta

 = 1 linea aktibatuta, deiak desbideratzeko aukera aktibatuta

 = 2 linea aktibatuta

 = 2 linea aktibatuta, deiak desbideratzeko aukera aktibatuta

Alarma bat aktibatzean,  hemen bistara daiteke.

- 6 Mezu-adierazlea** - Mezu berri bat jasotzean bistaratzen da. Adierazleak hauek izan daitezke:



 = testu-mezua

 = ahots-mezua

## 7 Txirrin-motaren adierazlea - Txirrin-motaren konfigurazioa adierazten du.

📶) = txirrin altua

📶 = bibrazioa eta txirrina

📶) = txirrin baxua

📶 = isilik

📶 = bibrazioa


## 8 Bateria-mailaren adierazlea - Barra bertikalek bateriaren karga-maila adierazten dute. Telefonoan **Batería Baja** azaltzen denean, kargatu berriro bateria.

# menuak

Pantaila nagusian,  sakatu menu nagusira sartzeko.

Nabarmendutako menu-funtzioa hautatzeko












Gora, behera, ezkerera edo eskuinera joateko. Sakatu erdian nabarmendutako menu-funtzioa hautatzeko.



Nabarmendutako menu-funtzioaren ikonoaren izena.

Aldaketarik egin gabe menutik irteteko.


Baliteke menuko ikono hauek erabili ahal izatea, operadorearen eta zerbitzuan harpidetutako aukeren arabera.

Menuko funtzioak	
 <b>Aplicaciones</b>	 <b>Agenda</b>
 <b>Opciones WAP</b>	 <b>Cámara de Vídeo</b>
 <b>Cámara</b>	 <b>Herramientas</b>
 <b>Ultimas Llamadas</b>	 <b>Conectividad</b>
 <b>Mensajes</b>	 <b>Configuración</b>
 <b>Multimedia</b>	

Funtzio batzuetan sartzeko, zerrenda bateko aukera bat hautatu behar da:

Nabarmendutako aukera.



Sakatu  behera jaisteko eta beste aukera batzuk ikusteko.

Sakatu **Opciones** tekla, azpimenua ikusteko.


Sakatu **Atrás** tekla, nabarmendutako aukeraren xehetasunak ikusteko.

- Joan gora edo behera, nahi duzun aukera nabarmentzeko.
- Zenbakitutako zerrenda bat bada, idatzi zenbakia aukera nabarmentzeko.

- Zerrenda alfabetikoa bada, sakatu tekla bat hainbat alditan, dagokion letraraino joan eta letra horretatik hasten den aukera nabarmentzeko.
- Aukera batek hainbat konfigurazioko zerrenda bat badu, joan eskuinera edo ezkerrera, konfigurazioa hautatzeko.
- Aukera batek zenbakizko hainbat balioko zerrenda badu, idatzi zenbakizko tekla balioa ezartzeko.






## testua idaztea

Testua sartzeko hainbat aukera daude.




Sakatu **#** testua idazteko pantaila batean, idazteko metodo bat hautatzeko:






<b>idazteko metodoak</b>	
 o <b>1</b>	Idazteko metodoa <b>Principal</b> gisa konfigura dezakezu iTAP™-en  eta tap <b>1</b> en.
 o <b>2</b>	Idazteko metodoa <b>Secundario</b> gisa konfigura dezakezu iTAP™-en  eta tap <b>2</b> n; bestela, <b>Ninguno</b> gisa, bigarren mailako idazteko metodorik ezarri nahi ez baduzu.
<b>123</b>	<b>Numérico</b> ; zenbakiak bakarrik sar daitezke.
	<b>Símbolo</b> ; ikurrak bakarrik sar daitezke.

Idazteko metodo nagusia eta sekundarioa ezartzeko, sakatu **Opciones > Configurar Texto** testua idazteko pantaila batean eta hautatu **Principal** edo **Secundario**.

**Iradokizuna:** MEZUA OZEN ESAN NAHI DUZU? Sakatu  testua sartzeko pantaila batean, letra larriz idazteko letra guztiak **ABC**, hurrengo letra bakarrik **Abc** edo bat ere ez **abc**.


## iTAP™ metodoa

Sakatu  testua idazteko pantaila batean, iTAP metodora aldatzeko.  edo  azaltzen ez badira, sakatu **Opciones > Configurar Texto**, iTAP metodoa metodo nagusi edo bigarren mailako metodo gisa definitzeko.

iTAP metodoaren bidez, letra bakoitzeko teklak behin bakarrik sakatuta sar daitezke hitzak. iTAP softwareak tekla-pultsazioak konbinatu egiten ditu hitz arruntak sortzeko; hitzak aurrean egiten ditu idatzi ahala.

Adibidez, **7 7 6 4** sakatzen baduzu, hau azalduko da pantailan:

Luze sakatu ... beherantz,  
hitzaren aukera-zerrenda  
bistaratzeko.



Sakatu **Opciones**  
tekla, mezuaren aukerak  
irekitzeko.

Sakatu **⊙** eskuinera,  
**Programa** onartzeko.

Sakatu **\*** espazio bat  
idazteko kurtsoarearen  
tokian.

Sakatu **Enviar a** tekla, mezua amaitzean.

- Beste hitz bat idatzi nahi baduzu (adibidez, **Progreso**) segitu teklatuko teklak sakatzen gainerako karaktereak idazteko.
- Zenbakiak azkar idazteko, luze sakatu tekla numeriko bat une batez metodo numerikora aldatzeko. Sakatu zenbaki-teklak, zenbakiak idazteko. Sartu espazio bat iTAP metodora itzultzeko.
- Sakatu **1** puntuazio-ikurrak eta bestelako karaktereak sartzeko.


**Iradokizuna:** ez kezkatu iTAP nola erabiltzen den ahazten bazaizu. Azalpenak behar izanez gero, testua idazteko pantaila batean, sakatu **Opciones > Configurar Texto > Tutorial Texto**.

## tap metodoa

Sakatu **#** testua idazteko pantaila batean, tap metodora aldatzeko. **abc 1** edo **2 abc** azaltzen ez badira, sakatu **Opciones > Configurar Texto**, tap metodoa metodo nagusi edo bigarren mailako metodo gisa definitzeko.


Testua tap metodoarekin idazteko, sakatu teklatuko tekla bat behin eta berriro, nahi duzun letra edo zenbakia azaldu arte. Egin gauza bera letra bakoitza idazteko.

Adibidez, **8** behin sakatzen baduzu, pantailan hau bistaratuko da:



Testua idatzi eta gero, sakatu **Enviar a** tekla hartzaileak hautatzeko.

Hiru karaktere edo gehiago segidan idazten dituzunean, baliteke telefonoak hitza identifikatzea. Adibidez, **prog** idazten baduzu, baliteke pantailan hau azaltzea:




- Esaldi bakoitzeko lehen karakterea beti bistaratuko da maiuskulaz. Beharrezkoa bada, sakatu [OK] beherantz karakterea minuskulaz jartzeko, kurtsorea hurrengo posiziora mugitu aurretik.
- Sakatu [OK] kurtsore keinukaria mugitzeko, mezuko testua sartzeko edota editatzeko.
- Testua edo aldaketak gorde nahi ez badituzu, sakatu [OK] grabatu gabe irteteko.
- **Tap Ampliado** karaktere berezietatik ikur osagarrietara aldatzen da, teklatuko tekla bat behin eta berriro sakatzean.

## zenbakizko metodoa

Sakatu [#] testua idazteko pantaila batean **123** ikusi arte. Sakatu zenbaki-teklak, zenbakiak idazteko.


## ikurren metodoa

Sakatu **#** testua idazteko ikuspegi batean, telefonoan ikurren zerrrenda bat bistaratu arte. Nabarmendu nahi duzun ikurra eta, ondoren, sakatu *erdiko tekla* .

## bolumena

Sakatu bolumen-tekla honetarako:



- sarrerako deien alerta desaktibatzeko
- Hitz egiten ari zarenean, entzungailuaren bolumena aldatzeko
- pantaila nagusitik txirrinaren bolumena aldatzeko




**Iradokizuna:** batzuetan, isiltasuna urrea bezalakoa da. Horregatik, txirrina **Vibración** edo **Silencioso** moduetara aldatzea erraza da. Horretarako, pantaila nagusian luze sakatu beheerantz bolumen-tekla. Halaber, **Silencioso** modura edo alderantziz ere alda dezakezu; horretarako, pantaila nagusian luze sakatu **#** tekla.

Telefonoa itxita dagoenean txirrinaren bolumena aldatzeko, ikus 60. orrialdea.

## nabigazio-tekla

Sakatu *nabigazio-tekla*  gorantz, beherantz, ezkerrerantz edo eskuinerantz, pantailan batetik bestera mugitzeko eta elementuak nabarmentzeko. Elementu bat nabarmentzean, sakatu *erdiko tekla*  hautatzeko.



## funtzio ugariko tekla

Funtzio ugariko teklak gauzak beste era batera egiteko aukera ematen dizu. Adibidez, menuko elementu bat nabarmentzen duzunean, funtzio ugariko tekla saka dezakezu hautatzeko (•◐• sakatu beharrean). Normalean, funtzio ugariko teklak •◐• teklaren funtzio bera du. Funtzio ugarik tekla aurkitzeko, kontsultatu 1. orrialdea. Pantaila nagusian funtzio ugariko teklaren funtzioa aldatzeko, ikus 87. orrialdea.

## kanpoko pantaila

Telefonoa ixtean, kanpoko pantailak ordua, data, egoeraren adierazleak eta sarrerako deien jakinarazpenak eta bestelako gertaerak adierazten ditu. Telefonoa desaktibatuta egon denean denboraldi batez, pantailan erlojua baino ez da ikusten. Telefonoaren egoera-adierazleen zerrenda bistaratzeko, ikus 50. orrialdea.

Telefonoaren txirrin-mota kanpoko pantailan ezartzeko:

- 1 Sakatu bolumen-tekla bat **txirrinak** ikusteko.
- 2 Sakatu hainbat aldiz funtzio ugariko tekla, zein estilo nahi duzun hautatzeko.
- 3 Pantaila nagusira itzultzeko, sakatu bolumen-tekla bat.

## esku libreko entzungailua

Telefonoaren esku libreko bozgorailua erabil dezakezu deitzeko, telefonoa belarriaren ondoan eduki gabe.

Hitz egiten ari zarela, sakatu **Altavoz** tekla esku libreko bozgorailua aktibatzeko. Pantailan **Altavoz Conectado** mezua bistaratzen da desaktibatu edo deia amaitu arte.


**Oharra:** esku libreko bozgorailuak ez du funtzionatzen telefonoa autoko kit batera edo esku libreko entzungailuetara konektatuta dagoenean.

## kodeak eta pasahitzak

Telefonoaren lau digituko **desblokeatze-kodea 1234** da, hasiera batean, eta 6 digituko **segurtasun-kodea**, berriz, **000000**. Operadoreak kodeak aldatu ez baditu, zuk aldatu beharko zenituzke:

**Bilatzeko:** sakatu  >  **Configuración > Seguridad > Contraseñas Nuevas**

**SIM** txartelaren **PINa** eta deiak blokeatzeko pasahitzak ere alda ditzakezu.

**Desblokeatze-kodea ahaztu bazaizu: Código Desbloq.** eskatzen dizunean, sartu 1234 edo zure telefono-zenbakiko azken lau digituak. Horrek balio ez badu, sakatu  eta sartu 6 digituko segurtasun-kodea.

**Beste koderen bat ahaztu bazaizu:** segurtasun-kodea, txartelaren PIN kodea, PIN2 kodea edo deiak blokeatzeko pasahitza ahaztu baduzu, jarri harremanetan zure operadorearekin.

# telefonoa blokeatzea eta desblokeatzea

Telefonoa blokea dezakezu, beste batzuk erabil ez dezaten. Telefonoa blokeatzeko edo desblokeatzeko, 4 digituko desblokeatze-kodea behar duzu.

Telefonoa **eskuz blokeatzeko**:

Sakatu  >  **Configuración > Seguridad > Bloqueo Teléfono > Bloquear Ahora.**

Telefonoa itzaltzen duzun bakoitzean **automatikoki blokeatzeko**:

Sakatu  >  **Configuración > Seguridad > Bloqueo Teléfono > Bloqueo Automático > Activado.**

**Oharra:** telefonoa blokeatuta badago, larrialdiko deiak egiteko aukera duzu beti (ikus 72. orrialdea). Telefonoa blokeatuta egonda ere, deiak edo mezuak jasotzean jo edo bibratu egingo du, **baina desblokeatu egin behar da erantzun nahi baduzu.**



# pertsonalizazioa

---

## txirrin-mota

Txirrin-motaren profil bakoitzak soinu- edo bibrazio-multzo bat erabiltzen du sarrerako deietarako eta bestelako gertaerentarako. Profil hauek hauta ditzakezu:

 **Alto**

 **Vibración**

 **Bajo**



 **Vibrar y Timbre**

 **Silencioso**

Txirrin-motaren profilaren adierazlea pantaila nagusiaren goiko aldean agertzen da. Profila hautatzeko:


**Bilatzeko:** sakatu  >  **Timbres > Tipo** txirrin-motaren izena

**Zuzeneko sarbidea: pantaila nagusian,** sakatu bolumen-teklak gora edo behera, txirrin-motaren profila azkar aldatzeko. **Telefonoa itxita dagoenean,** sakatu bolumen-tekla bat, txirrin-motaren profila ikusteko; sakatu funtzio ugariko tekla aldatzeko eta, gero, sakatu bolumen-tekla bat aldaketa gordetzeko.


**Iradokizuna:** testu-mezu asko jasotzen dituzu? Telefonoz hitz egiten ari zarenean sarrerako mezuen alertak entzun nahi ez badituzu, sakatu  >  **Configuración > Llamada Entrante > Alerta Mensaje > No en llamada.**

## alertak aldatzea txirrin-mota baterako

Sarrerako deien eta bestelako gertaeren alertak alda ditzakezu. Aldaketak uneko txirrin-motaren profilean gordetzen dira.

**Bilatzeko:** sakatu  >  **Timbres > Detalle**

**Oharra:** Tipo uneko txirrin-mota da. Ezin da alertarik ezarri, **Silencioso** txirrin-mota konfiguratzeko.

- 1 Nabarmendu **Llamadas** (edo **Línea 1** edo **Línea 2** linea duala duen telefonoetarako), eta, gero, sakatu **Cambiar** tekla, aldatzeko.
- 2 Nabarmendu alerta, eta, gero, sakatu .
- 3 Sakatu **Atrás** tekla alertaren konfigurazioa gordetzeko.



## ordua eta data

Zure telefonoak ordua eta eguna jakin behar ditu Calendario aukerarako.

Ordua eta eguna sarekoarekin **sinkronizatze**ko: sakatu

 >  **Configuración > Configuración Inicial > Hora y Fecha > Actualización Automat > Activado.**



*Ordua eta data* **eskuz** doitzeko, desaktibatu **Actualización Automat** aukera, eta, ondoren: sakatu  >  **Configuración > Configuración Inicial > Hora y Fecha > ordua edo data.**


Pantaila nagusirako erloju **analogikoa** edo **digitala** hautatzeko, sakatu  >  **Configuración > Personalización > Pantalla Principal > Reloj.**

# pantailaren hondoa

Argazki, irudi edo animazio bat konfiguratu dezakezu pantaila nagusiko pantailaren hondo gisa erabiltzeko.

**Oharra:** erabiltzen duzun *gaiak* ezar dezake pantailaren hondoa (66. orrialdea).

**Bilatzeko:** sakatu  >  **Configuración > Personalización > Fondo Pantalla**

aukerak	
<b>Imagen</b>	Sakatu  gorantz edo beherantz irudi bat hautatzeko edo, bestela, hautatu <b>NO</b> pantailaren hondorik nahi ez baduzu.
<b>Diseño</b>	Hautatu <b>Centrar</b> irudia pantailan erdiratzeko, <b>Mosaico</b> irudia pantailan behin eta berriro errepikatuzko edo <b>Ajustar a la Pantalla</b> irudia pantailari egokitzeko.


# pantaila-babesak

Argazki bat, irudi bat edo animazio bat pantaila-babes gisa konfiguratu daitezke. Pantaila-babesa bistaratzen da tapa irekita dagoenean eta denbora-tarte jakin batean telefonoa ezertarako erabili ez denean.

**Oharra:** erabiltzen duzun *gaiak* ezar dezake pantaila-babesa (66. orrialdea).

**Irudokizuna:** horrekin pantaila babesten da, baina ez batera. Bateriaren iraupena areagotzeko, desaktibatu pantaila-babesa.

**Bilatzeko:** sakatu  > **Configuración > Personalización > Salvapantallas**

aukerak	
<b>Imagen</b>	Sakatu  gorantz edo beherantz irudi edo animazio bat hautatzeko edo, bestela, hautatu <b>NO</b> pantaila-babesik nahi ez baduzu.
<b>Tiempo</b>	Hautatu zenbat denbora igaro behar den telefonoa ezertarako erabili gabe pantaila-babesa bistara dadin.

## gaiak

*Telefonorako gaia* telefonoarekin erabil daitezkeen irudien eta soinuen multzoa da. Telefonoko gai gehienetan, normalean, pantailaren hondo bat, pantaila-babesaren irudia eta txirrina sartzen dira. Baliteke zure telefonoak hainbat gai izatea, baina gehiago deskarga ditzakezu.





Gai bat **aplikatzeko**, sakatu  >  **Multimedia > Temas > gaia**. Gai bat **deskargatzeko**, ikus 95. orrialdea.

Gai bat **ezabatzeko**, sakatu  >  **Multimedia > Temas**, joan gairaino eta sakatu > **Borrar** edo **Borrar Todo**.

**Oharra:** deskargatutako gaiak bakarrik ezaba daitezke.

# pantailaren itxura

**Oharra: Ahorro Batería** funtzioarekin telefonoak ez ditu pantaila eta teklatura pizten ilun ez badago. Funtzio hori aktibatzeko, sakatu  >  **Configuración** > **Configuración Inicial** > **Ahorro Batería** > **Activado**.

Zure telefonoaren pantailaren itxura konfiguratzeko aukera ematen duen **Formatu** bat hautatzeko: sakatu  >  **Configuración** > **Personalización** > **Interfaz**. Erabiltzen duzun *gaiak* ezar dezake formatua (66. orrialdea).

Pantailaren **distira** egokitzeko: sakatu  >  **Configuración** > **Configuración Inicial** > **Contraste**.

Bateriaren iraupena luzatzeko, teklatuaren **argia** itzali egingo da telefonoa erabiltzen ez denean. Argia berriz piztuko da tapa ireki eta tekla bat sakatzean. Argia itzali baino lehen telefonoak zenbat denbora itxarongo duen ezartzeko:

Sakatu  >  **Configuración** > **Configuración Inicial** > **Iluminación**.



**Oharra:** Java™ aplikazioen argia aktibatzeko edo desaktibatzeko, sakatu  >  **Configuración** > **Configuración Java** > **Iluminación**.

Bateriaren iraupena luzatzeko, **pantaila** itzali egin daiteke telefonoa erabiltzen ez denean. Pantaila berriz piztuko da tapa ireki eta tekla bat sakatzean. Pantaila itzali baino lehen telefonoak zenbat denbora itxarongo duen ezartzeko:

Sakatu  >  **Configuración** > **Configuración Inicial** > **Pantalla en Espera**.

# erantzuteko aukerak

Sarrerako deiei erantzuteko hainbat modu daude. Erantzuteko aukera bat aktibatzen edo desaktibatzen:

**Bilatzeko:** sakatu  >  **Configuración > Llamada Entrante > Opciones Respuesta**

aukerak	
<b>Multitecla</b>	Edozein tekla sakatuta erantzuteko.
<b>Responder al Abrir</b>	Tapa irekita erantzuteko.

# deiak

---

Deitzeko edo deiak jasotzeko, ikus 27. orrialdea.

## dei-alerta desaktibatzea


Bolumen-teklak saka ditzakezu, erantzun baino lehen dei-alerta desaktibatzeko.



## azken deiak

Telefonoak sarrerako eta irteerako deien zerrenda du, eta konexioa lortu ez den deiak ere azaltzen dira. Lehenbizi, azken deiak azaltzen dira. Dei zaharrenak ezabatu egiten dira berriak sartzen doazen heinean.

**Zuzeneko sarbidea:** Sakatu  pantaila nagusian, azken deien zerrenda ikusteko.



**Bilatzeko:** Sakatu  >  **Ultimas Llamadas > Llamadas Recibidas o Llamadas Realizadas**


Nabarmendu dei bat. Deien ondoan  adierazlea baldin badago, deian konexioa lortu dela esan nahi du.

- Zenbaki batera deitzeko, sakatu .
- Deiarene xehetasunak ikusteko (ordua eta eguna, adibidez), sakatu *erdiko tekla* .
- **Menú Llamadas** ikusteko, sakatu **Opciones**. Menu honetan hauxe ikus dezakezu:

aukerak	
<b>Guardar</b>	Aurkibidean sarrera bat sortzen du, <b>Nº</b> eremuan azaltzen den zenbakiarekin. <b>Guardar</b> ez da agertzen zenbakia lehendik gordeta badago.
<b>Borrar</b>	Sarrera ezabatzen du.
<b>Borrar Todos</b>	Zerrendako sarrera guztiak ezabatzen dira.
<b>Ocultar Número/ Mostrar Número</b>	Hurrengo deian deiazen identifikazioa ezkutatu edo bistaritzen du.
<b>Enviar Mensaje</b>	Testu-mezu berri bat irekitzen du, <b>Para</b> eremuan azaltzen den zenbakiarekin.
<b>Añadir Dígitos</b>	Zenbakiaren atzean digitu bat gehitzen du.
<b>Adjuntar Número</b>	Telefono-aurkibideko edo azken deien zerrendako zenbaki bat gehitzen du.

## berriz markatzea

- 1 Sakatu  pantaila nagusian, azken deien zerrenda ikusteko.
- 2 Nabarmendu deitu nahi duzun sarrera eta, gero, sakatu .


Komunikatzen ari dela adierazten duen seinalea entzuten baduzu eta **Llamada Fallida, Número Ocupado** mezua ikusten baduzu, sakatu  edo **Reintentar** tekla, zenbakia berriro markatzeko. Deia erantzun diotenean, telefonoak behin jotzen du edo bibratu egiten du, **Remarcación realizada** mezua bistaratu eta, ondoren, konexioa ezartzen da.





## deia itzultzea

Telefonoak erantzunik gabeko de guztien erregistroa du, eta **X Llamadas Perdidas** mezua bistaritzen du (**X** galdutako dei-kopurua da).

- 1 Sakatu **Ver** tekla jasotako deien zerrenda ikusteko.
- 2 Nabarmendu deia itzuli nahi diozun zenbakia, eta, gero, sakatu .

## deia identifikatzea

*Dei-identifikazioak* (deiaren IDa) sarrerako dei baten zenbakia bistaritzen du, bai kanpoko pantailan bai barnekoan.



Telefonoak dei-egilearen izena eta irudia bistaratuko ditu aurkibidean gordeta baldin badaude; informazio hori sartuta ez badago, berriz, **Llamada Entrante** bistaratuko da.


Telefonoa konfiguratu dezakezu aurkibideko sarrera jakinei beste txirrin bat esleitzeko (ikus 78. orrialdea).

Egiten duzun hurrengo deian **zure telefono-zenbakia** bistartzeko edo ezkutatzeko, idatzi telefono-zenbakia eta sakatu **Opciones > Ocultar Número/Mostrar Número**.

# larrialdi-deiak

Zure operadoreak larrialdi-telefono bat edo gehiago programa ditzake (adibidez, 999); horietara edozein egoeratan dei dezakezu, baita telefonoa blokeatuta dagoenean edo SIM txartela sartu ez denean ere.

**Oharra:** larrialdi-zenbakiak aldatu egiten dira herrialde batetik bestera. Baliteke telefonoan programatutako larrialdi-zenbakiak ez funtzionatzea leku guztietan eta batzuetan larrialdi-deiak egiteko aukerarik ez izatea interferentzia-, inguru- edo sare-arazoengatik.

- 1 Sakatu teklatuko teklak larrialdi-zenbakia idazteko.
- 2 Sakatu  larrialdi-zenbakira deitzeko.


# ahots-postontzia

Sareak telefonoan jasotako ahots-mezuak gordetzen ditu.

Zure mezuak entzuteko, zure ahots-postontziko zenbakira deitu behar duzu.



**Oharra:** zure operadoreak funtzio honen erabilerari buruzko informazio osagarria gehi dezake.

Ahots-postontziaren mezu bat **jasotzen** duzunean, telefonoan  ahots-postontziaren mezuaren adierazlea eta **Nuevo Mensaje en Buzón** bistaratuko dira. Sakatu **Llamar** tekla mezua gordetzeko.

Ahots-postontziko mezuak entzuteko:

**Bilatzeko:** Sakatu  >  **Mensajes > Buzón de Voz**

Baliteke zure telefonoak eskatzea ahots-postontziko telefono-zenbakia gordeta izateko. Ahots-postontziaren zenbakia zein den ez badakizu, jo zure operadorearengana.

**Oharra:** Zenbaki honetan ezin dira karaktere hauek gorde: **p** (etenaldikoa), **w** (itxarotekoa) edo **n** (zenbakia). Ahots-postontziko zenbaki bat karaktere horiekin gorde nahi baduzu, sortu sarrera bat telefono-aurkibidean helburu horrekin. Hala, sarrera hori erabil dezakezu ahots-postontzira deitzeko.






# beste zenbait funtzio














---

## dei-funtzio aurreratuak

funtzioak	
<b>telefono-aurkibidean gordetako zenbaki bat markatzea (digituak markatzea)</b>	Luze sakatu ahots-tekla. Eskatzen dizunean, esan <b>“marcación de dígitos”</b> (2 segundotan). Eskatzen dizunean, esan markatu nahi dituzun digituak (digitu bakoitzeko 2 segundo). Markatu nahi dituzun digituak ezagutzen ditu telefonoak. Aurkibideko sarrera bat ahoz markatzeko, ikus 77. orrialdea.
<b>zenbakiak gehitzea</b>	Markatu eremu-kode bat edo aurrezenbaki bat, aurkibideko zenbaki batentzat, eta, gero: <b>Opciones &gt; Adjuntar Número</b>
<b>nazioarteko deiak</b>	Zure telefono-zerbitzuak nazioarteko markaketa egiteko aukera onartzen badu, luze sakatu <b>[0]</b> tekla nazioarteko aurrezenbakia sartzeko (+ zeinuarekin adierazten da). Gero, teklatuko teklak erabiliz markatu herrialdeko kodea eta telefono-zenbakia.



<b>funtzioak</b>	
<b>dei bat zain uztea</b>	Sakatu <b>Opciones &gt; Suspender</b> dei aktibo guztiak zain uzteko.
<b>deia isilaraztea</b>	Sakatu <b>Silenciar</b> tekla (erabilgarri badago) edo <b>Opciones &gt; Silenciador</b> dei aktibo guztiak isilarazteko.
<b>deia zain</b>	<p>Dei batean, ohartarazpena entzungo duzu bigarren dei bat jasotzen baduzu. </p> <p>Sakatu  dei berriari erantzuteko.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Dei batetik bestera aldatzeko, sakatu <b>Cambiar</b>.</li> <li>• Bi deiak konektatzeko, sakatu <b>Enlazar</b> tekla.</li> <li>• Zain dagoen deia amaitzeko, sakatu <b>Opciones &gt; Finalizar en Espera</b>.</li> </ul> <p>Zain dagoen deiaren funtzioa aktibatzeke edo desaktibatzeke, sakatu  <b>Configuración &gt; Llamada Entrante &gt; Llamada en Espera &gt; Activado</b> edo <b>Desactivado</b></p>
<b>konferentzia-deia</b>	<p>Hitz egiten ari zarela: </p> <p>Markatu hurrengo zenbakia, sakatu  eta, ondoren, sakatu <b>Enlazar</b> tekla.</p>

funtzioak	
<b>dei bat transferitzea</b>	<p>Hitz egiten ari zarela: </p> <p><b>Opciones &gt; Transferir</b>, markatu transferitzeko zenbakia eta sakatu .</p>
<b>deiak desbideratzea</b>	<p>Deiak desbideratzeko aukera aktibatzea edo desaktibatzea: </p> <p> &gt;  <b>Configuración &gt; Desvío de Llamada</b></p> <p>Dei bat desbideratu baino lehen telefonoak zenbat denbora itxarongo duen ezar dezakezu (<b>5, 10, 15, 20</b> edo <b>25</b> segundo).</p>
<b>deiak blokeatzea</b>	<p>Irteerako edo sarrerako deiak mugatzeko: </p> <p> &gt;  <b>Configuración &gt; Seguridad &gt; Bloqueo Llamada</b></p>
<b>Llamada marcación fija</b>	<p>Markaketa finkoa aktibatzean, markaketa finkoko zerrendan azaltzen diren zenbakietara bakarrik dei dezakezu. </p> <p>Markaketa finkoa aktibatzeko edo desaktibatzeko:</p> <p> &gt;  <b>Configuración &gt; Seguridad &gt; Marcación Fija</b></p> <p>Markaketa finkoko zerrenda erabiltzeko:</p> <p> &gt;  <b>Herramientas &gt; Serv. Marcación &gt; Marcación Fija</b></p>

## funtzioak

### markaketa bizkorra

Programatutako telefonoen zenbakiak markatzeko:



 >  **Herramientas > Serv.**  
**Marcación > Marcación Rápida**

## telefono-aurkibidea

## funtzioak

### aurkibideko sarrera bat ahotsez markatzea (izenez markatzea)

Telefono-aurkibidean gordetako zenbaki bat markatzeko:

Luze sakatu ahots-tekla.

Eskatzen dizunean, esan **“marcación por nombre”** (2 segundotan). Eskatzen dizunean, esan sarreraren etiketa (2 segundotan).

Esandako izenarekin bat datorrena bilatzen du telefonoak aurkibidean. Aurkibidean gordeta ez dagoen zenbaki bat ahotsez markatzeko, ikus 74. orrialdea.

## funtzioak

### telefono-aurkibideko sarrera bat aldatzea edo ezabatzea

Telefono-aurkibidean gordetako zenbaki bat aldatzeko:

☎ > 📅 **Agenda**, nabarmendu aurkibideko sarrera eta sakatu **Opciones**. Hauek edo beste batzuk hauta ditzakezu: **Modificar, Borrar**.

**Zuzeneko sarbidea:** aurkibidean, sakatu tekla numerikoak sarrerari dagozkion lehenbiziko letrak sartzeko. Halaber, [\*] eta [#] saka ditzakezu normalean erabiltzen dituzun sarrerak edo beste kategoria batzuetako sarrerak ikusteko.

### txirrin bidezko identifikazioa konfiguratzea aurkibideko sarrera batentzat

Esleitu sarrera bati txirrin-alerta bat (txirrin-identifikatzailea):



☎ > 📅 **Agenda** > *sarrera* eta sakatu **Opciones** > **Editar Contacto** > **Timbre Personal** > *txirrinaren izena*

**Oharra: Timbre Personal** aukera ez dago erabilgarri SIM txartelean gordetako sarrentzat.

Aktibatu txirrin-adierazleak:

☎ > 🗺 **Timbres** > **Detalle** > **Timbres Personales**



funtzioak	
<b>irudi bidezko identifikazioa konfiguratzea aurkibideko sarrera batentzat</b>	<p>Argazki bat edo irudi bat sarrera jakin bati esleitzea, horren dei bat jasotzean bistara dadin:</p> <p>• ➤ &gt;  <b>Agenda</b> &gt; <i>sarrera</i>, eta sakatu <b>Opciones</b> &gt; <b>Editar Contacto</b> &gt; <b>Imagen</b> &gt; <i>irudiaren izena</i></p> <p><b>Oharra: Imagen</b> aukera ez dago erabilgarri SIM txartelean gordetako sarrerentzat.</p>
<b>irudi bidezko identifikazioaren ikuspegia ezartzea, aurkibide baterako</b>	<p>Bistaratu sarrerak testu-zerrenda gisa edo irudi bidezko identifikazioko argazkiekin:</p> <p>• ➤ &gt;  <b>Agenda</b>, gero sakatu <b>Opciones</b> &gt; <b>Ver</b> &gt; <i>ikuspegiaren izena</i></p>
<b>aurkibideko sarrera baten kategoria konfiguratzea</b>	<p>• ➤ &gt;  <b>Agenda</b> &gt; <i>sarrera</i>, gero sakatu <b>Opciones</b> &gt; <b>Editar Contacto</b> &gt; <b>Categoría</b> &gt; <i>kategoriaren izena</i></p> <p><b>Oharra: Categoría</b> aukera ez dago erabilgarri SIM txartelean gordetako sarrerentzat.</p>

## funtzioak

### kategoriaren araberako ikuspegia ezartzea aurkibiderako

☰ > 📅 **Agenda**, gero sakatu **Opciones > Filtrado por > Categoría > kategoriaren izena**

Aukera hauek dituzu: sarrera **guztiak** ikustea, aurrez zehaztutako kategoría bateko sarrerak ikustea edo sortutako kategoría bateko sarrerak ikustea.

**Zuzeneko sarbidea:** Aurkibideko beste kategoría batzuk ikusteko, sakatu **[\*]** edo **[#]**.

### banaketa-zerrenda sortzea

Aurkibideko hainbat sarrera banaketa-zerrenda bateko taldean sar daitezke, mezuak zerrenda horretara bidali ahal izateko. Zerrenda bat sortzeko:

☰ > 📅 **Agenda**, gero sakatu **Opciones > Crear Nuevo > Lista de Distribución**

Zerrendaren izena hauta dezakezu multimedia-mezuetarako helbide gisa.

**Oharra:** **Lista de Distribución** batean ezin dira sartu SIM txartelean gordetako sarrerak.

## funtzioak

### aurkibideko zerrenda ordenatzea

Sarrerak zerrendatzeko ordena konfiguratzeko:

☰ >  **Agenda**, gero sakatu **Opciones > Configurar > Ordenar por > sailkapen-ordena**

Aurkibideko zerrenda hauen arabera ordena daiteke: **Nombre, Apellidos** edo **Número Posición**.


### aurkibidean sarrerak kopiatzea

Telefonotik SIM txartelera edo SIM txarteletik telefonora sarrera bat kopiatu:

☰ >  **Agenda**, nabarmendu sarrera eta sakatu **Opciones > Copiar a SIM** edo **Copiar al Tfno**

### aurkibideko hainbat sarrera kopiatzea

Telefonoaren eta SIM txartelaren artean aurkibideko hainbat sarrera kopiatzeko:

☰ >  **Agenda**, nabarmendu sarrera bat eta sakatu **Opciones > Seleccionar Multiple a**, gero hautatu **Copiar a SIM** edo **Copiar al Tfno**

### aurkibideko sarrera bat beste gailu batera bidaltzea

Aurkibideko sarrera bat beste telefono, ordenagailu edo beste gailu batera bidaltzeko:

☰ >  **Agenda**, nabarmendu sarrera eta sakatu **Opciones > Enviar Contacto**

Fitxategiak beste gailu batera nola kopiatu informazio gehiago behar baduzu, ikus 44. orrialdea.

## funtzioak

### Bluetooth® konexio baten bidez sarrera bat inprimatzea

Haririk gabeko Bluetooth konexio bat erabil dezakezu aurkibideko sarrera bat telefonotik inprimagailura bidaltzeko.



 >  **Telefono-aurkibidea**

Nabarmendu inprimatu nahi duzun sarrera eta, gero, sakatu **Opciones > Imprimir**.

Ezin da inprimatu banaketa-zerrendarik (**Lista de Distribución**). Bluetooth konexioei buruz informazio gehiago izateko, ikus 42. orrialdea.

## mezuak



Telefonoak mezuen konfigurazioa irakurtzen du USIM txarteletik. Telefonoan beste USIM txartel bat jartzen baduzu, telefonoak txartel berriaren telefono-zenbakiaren mezuak bidaltzen eta horri dagozkionak jasotzen ditu.

## funtzioak

### testu-mezuak bidaltzea

 >  **Mensajes > Nuevo**



**Iradokizuna:** Mezu dibertigarriagoak egin nahi dituzu? Mezu bat sortzen ari zarenean,  saka dezakezu kameraren bisorea irekitzeko, argazki bat ateratzeko eta mezuari txertatzeko. Luze sakatu  bideoaren bisorea irekitzeko.

## funtzioak

### mezu elektronikoa bat bidaltzea

 >  **Mensajes > Mensajes**  
**Email PJN > Crear email**



**Oharra:** posta elektronikoa erabiltzeko, agian **erabiltzaile-izena** eta **pasahitza** sartu beharko dituzu, posta elektronikoaaren konfigurazioan (ikus 85. orrialdea).

### ahots-mezu bat bidaltzea

 >  **Mensajes** eta, gero, sakatu **Opciones > Nuevo Msj Voz**









Ahots-mezu bat grabatzeko, sakatu **Grabar** tekla, hitz egin, eta, gero, sakatu **Parar** tekla. Telefonoak ahots-grabazioa sartuko du mezu batean, eta mezuan jasotzen diren helbide elektronikoa edo telefono-zenbakiak gordetzeko aukera emango dizu.








### testu-mezuak bidaltzea

 >  **Mensajes > Bandeja Entrada**



Mezuen alboko ikonoek adierazten dute irakurrita dauden  edo  ez. Halaber, mezua blokeatuta dagoen , presazkoa den , lehentasun txikia duen  edo fitxategi erantsiak dituen  adieraz dezakete ikono horiek.

**Responder, Reenviar, Bloquear, Borrar** eta antzeko mezu-aukerak ikusteko, nabarmendu mezua eta sakatu **Opciones**.

funtzioak		
<b>mezu elektronikoak irakurtzea eta administratzea</b>	 >  <b>Mensajes &gt; Mensajes Email</b>  <b>Responder, Reenviar, Bloquear, Borrar</b> eta antzeko mezu-aukerak ikusteko, nabarmendu mezu elektronikoa eta sakatu <b>Opciones</b> .	
<b>mezuetako objektuak gordetzea</b>	Joan multimedia-mezu baten orrialde batera edo nabarmendu mezu bateko elementu bat, eta, ondoren:  <b>Opciones &gt; Guardar</b>	
<b>Bluetooth® konexio baten bidez sarrera bat inprimatzea</b>	Haririk gabeko Bluetooth konexio bat erabil dezakezu mezu bat telefonotik inprimagailura bidaltzeko.   >  <b>Mensajes &gt; Bandeja Entrada, Mensajes Email, Mensajes Navegador</b> edo, bestela <b>Servicios Información</b>  Nabarmendu inprimatu nahi duzun mezua eta, gero, sakatu <b>Opciones &gt; Imprimir</b> .  Ezin dira inprimatu <b>mezu-txantiloiak</b> . Bluetooth konexioei buruz informazio gehiago izateko, ikus 42. orrialdea.	

## funtzioak

### posta elektronikoaren konfigurazioa aldatzea

Posta elektronikoko konexioen konfigurazioa alda dezakezu. Posta elektronikoa erabiltzeko, posta elektronikorako **erabiltzailea** eta **pasahitza** gorde behar dituzu.



•📧➤  **Mensajes** eta, gero, **Opciones Configurar Email > Configuración Cuenta**

Posta elektronikoko hainbat kontu badituzu, hautatu kontu bat aldatzeko.

Telefonoak aukera-zerrenda bat bistaratuko du mezu elektronikorako. Hortxe gordeko dituzu, hain zuzen, posta elektronikoaren **erabiltzaile-izena** eta **pasahitza**.

**Oharra:** kontu berri bat sortzeko, hautatu **Nueva Entrada, Configuración Cuenta** zerrendan.

Pantailan karpeta bana bistaratzen da kontu elektronikoko bakoitzeko, aukera honetan:

•📧➤  **Mensajes > Mensajes Email.**

### mezuak arakatzea

Nabigatzailetik jasotako mezuak irakurtzeko:



•📧➤  **Mensajes > Mensajes Navegador**












### informazio-zerbitzuak

Harpidetuta zauden informazio-zerbitzuetako mezuak irakurtzeko:





•📧➤  **Mensajes > Servicios Información**

# personalizazioa

funtzioak	
<b>idioma</b>	Menuko hizkuntza konfiguratzeko:  >  <b>Configuración</b> > <b>Configuración Inicial</b> > <b>Idioma</b>
<b>desplazamiento</b>	Nabarmentzeko barra menuaren zerrendetan geldu dadin edo zerrendei doidakien konfiguratzea:  >  <b>Configuración</b> > <b>Configuración Inicial</b> > <b>Desplazamiento</b>
<b>txirrin-adierazleak aktibatzea</b>	Aurkibideko sarrerei eta kategoriei esleitutako txirrin-adierazleak aktibatzeko:  >  <b>Timbres</b> > <b>Detalle</b> > <b>Timbres Personales</b>
<b>txirrin-bolumena</b>	Sakatu  >  <b>Timbres</b> > <b>Detalle</b> > <b>Volumen Timbre</b>
<b>teklatuaren bolumena</b>	Sakatu  >  <b>Timbres</b> > <b>Detalle</b> > <b>Teclado</b>
<b>oharrak</b>	Jasotzen dituzun mezuak jakinarazteko alertak ezartzeko: Sakatu  >  <b>Timbres</b> > <b>Detalle</b> > <b>Recordatorios</b>



<b>funtzioak</b>	
<b>menuaren ikuspegia</b>	<p>Pantaila nagusia ikono grafikoen bidez edo testu-zerrenda gisa bistaratzeko:</p> <p> &gt;  <b>Configuración &gt; Personalización &gt; Menú Principal &gt; Ver</b></p>
<b>menu nagusia</b>	<p>Zure telefonoko menu nagusia berrantolatzeko:</p> <p> &gt;  <b>Configuración &gt; Personalización &gt; Menú Principal &gt; Reorganizar</b></p>
<b>menuko ikonoak bistaratzera edo ezkutatzera</b>	<p>Pantaila nagusiko menuaren funtzio-ikonoak bistaratzeko:</p> <p> &gt;  <b>Configuración &gt; Personalización &gt; Pantalla Principal &gt; Teclas &gt; Iconos</b></p>
<b>pantaila nagusiko teklak aldatzea</b>	<p>Pantaila nagusian, funtzio-teklen, nabigazio-teklaren eta funtzio ugariko teklaren funtzioak aldatzeko:</p> <p> &gt;  <b>Configuración &gt; Personalización &gt; Pantalla Principal &gt; Teclas</b></p>
<b>berrabiaraztea</b>	<p>Desblokeatze-kodea, segurtasun-kodea eta deien kontagailua ez beste aukera guztiak berrabiarazteko:</p> <p> &gt;  <b>Configuración &gt; Configuración Inicial &gt; Reinicializar</b></p>


## funtzioak

### guztia ezabatzea

**Kontuz:** guztia ezabatuz gero, **sartutako informazio guztia** (aurkibideko eta egutegiko sarrerak barne) **eta deskargatutako edukiak** (argazkiak eta soinuak barne) **ezabatu egiten dira**, telefonoaren memorian gordetakoak. Informazio guztia ezabatutakoan, ezingo da berreskuratu.

 >  **Configuración** > **Configuración Inicial** > **Borrado General**

## deien iraupena eta kostua

**Sarera konektatuta egondako denbora** esaten zaio operadorearen sarera konektatzen zarenetik  sakatuta deia amaitzen duzun arte pasatzen den denborari. Denbora horretan, linea okupatuta dagoela adierazten duen seinalea eta markatzen pasatzen den denbora sartzen dira.

**Kontagailuak sarera konektatuta pasatutako denbora adierazten du, baina baliteke operadoreak fakturatutako denborarekin bat ez etortzea. Fakturei buruzko informazioa eskuratzeko, jarri harremanetan zure operadorearekin.**

## funtzioak

### deien iraupena

Deien kontagailuak ikusteko:



 >  **Ultimas Llamadas**  
> **Tiempo de Llamadas**



funtzioak	
<b>denbora-kontagailua</b>	<p>Dei batean, haren iraupena eta kostua bistaratzeko:</p> <p> &gt;  <b>Configuración &gt; Llamada Entrante &gt; Contador Tiempo</b></p>
<b>deiaaren kostuak</b>	<p>Kostuen segimenduaren kontagailuak ikusteko:</p> <p> &gt;  <b>Ultimas Llamadas &gt; Coste Llamada</b></p>

## esku libreko funtzioa

**Oharra:** mugikorrek eta horien osagarriak erabiltzea debekatuta edo mugatuta egon daiteke toki batzuetan. Kontuan izan beti produktu hauek arautzen dituzten legeak eta erabilera-arauak.

funtzioak	
<b>mikrofonoa</b>	<p>Mikrofonoa hitz egitean aktibatzeko:</p> <p>Sakatu <b>Altavoz</b> tekla (erabilgarri badago, edo <b>Opciones &gt; Altavoz Conectado</b>).</p>
<b>automatikoki erantzutea</b> (ibilgailuko kita edo entzungailuak)	<p>Ibilgailuko kitarekin edo entzungailuekin deiei automatikoki erantzuteko:</p> <p> &gt;  <b>Configuración &gt; Kit de Coche</b> edo <b>Manos Libres &gt; Respuesta Automática</b></p>



<b>funtzioak</b>		
<p><b>ahots bidezko markaketa</b> (entzungailuak)</p>	<p>Entzungailuetako bidaltzeko/ amaitzeko teklarekin ahots bidezko markaketa aktibatzeko:</p> <p>☛ &gt; 🗨️ <b>Configuración</b> &gt; <b>Manos Libres</b> &gt; <b>Marcación por Voz</b></p>	
<p><b>esku libreko ekipo automatikoa</b> (autoko kita)</p>	<p>Deiak ibilgailuko kitera automatikoki desbideratzeko:</p> <p>☛ &gt; 🗨️ <b>Configuración</b> &gt; <b>Kit de Coche</b> &gt; <b>Manos Libres</b></p>	
<p><b>itzaltzea atzeratzea</b> (ibilgailuko kita)</p>	<p>Motorra itzaltzen denetik denbora jakin batean telefonoa piztuta edukitzeko moduan konfiguratzeko telefonoa:</p> <p>☛ &gt; 🗨️ <b>Configuración</b> &gt; <b>Kit de Coche</b> &gt; <b>Retrasar Apagado</b></p>	
<p><b>karga-denbora</b> (ibilgailuko kita)</p>	<p>Motorra itzaltzen denetik kontakatzen hasita, denbora jakin batean kargatzen edukitzeko moduan konfiguratzeko telefonoa:</p> <p>☛ &gt; 🗨️ <b>Configuración</b> &gt; <b>Kit de Coche</b> &gt; <b>Tiempo de Carga</b></p>	

# datu-deiak

Telefonoa USB kable batekin konektatzeko, ikus 41. orrialdea.

funtzioak		
<b>datuak bidaltzea</b>	Telefonoa gailura konektatu eta deia gailuaren aplikazioaren bidez egin.	
<b>datuak jasotzea</b>	Telefonoa gailura konektatu eta deia gailuaren aplikazioaren bidez erantzun.	
<b>sinkronizazioa</b>	<p>Interneteko zerbitzari batera deitu eta aurkibideko sarrerak eta egutegia sinkroniza ditzakezu, zerbitzari horrekin.</p> <p>Interneten sinkronizatzeko gailua <b>konfiguratzeko</b>, sakatu  &gt;  <b>Configuración</b> &gt; <b>Conectividad</b> &gt; <b>Sincronizar</b> &gt; <b>[Nueva Entrada]</b>. Idatzi zerbitzariaren xehetasunak, zerbitzariaren <b>URL helbidea barne (http:// ken dezakezu)</b> eta datuen bide-izenak barne (datuak gordeta dauden URLren barruko karpeta).</p> <p><b>Fitxategiak</b> konfiguratuta dagoen gailu batekin <b>sinkronizatzeko</b>, hautatu zerrendan:  &gt;  <b>Configuración</b> &gt; <b>Conectividad</b> &gt; <b>Sincronizar</b>.</p>	









## sarea

funtzioak	
<b>sarea konfiguratzea</b>	Sareko informazioa ikusteko eta sarea konfiguratzeko:  >  <b>Configuración &gt; Red</b>





## antolatzaile pertsonala

funtzioak	
<b>alarma ezartzea</b>	 >  <b>Herramientas &gt; Alarma</b>
<b>alarma desaktibatzea</b>	Alarmak jotzen duenean: Alarma desaktibatzeko, sakatu <b>Deshabilitar</b> edo  tekla. Zortzi minutuko atzerapena ezartzeko, sakatu <b>Ignorar</b> tekla.
<b>Egutegian gertaera berriak gehitzea</b>	 >  <b>Herramientas &gt; Calendario</b> , nabarmendu eguna, sakatu  eta, gero, sakatu <b>Opciones &gt; Nuevo</b>
<b>egutegiko gertaera bat ikustea</b>	Gertaeraren xehetasunak ikusteko edo aldatzeko:  >  <b>Herramientas &gt; Calendario</b> , nabarmendu eguna, sakatu  eta, gero, sakatu <b>Ver</b> .
<b>gertaeraren oharra</b>	Gertaera baten berri ematen denean: Oharraren xehetasunak ikusteko, sakatu <b>Ver</b> tekla. Oharra ixteko, sakatu <b>Atrás</b> tekla.

funtzioak	
<b>egutegiko gertaera bat beste gailu batera bidaltzea</b>	<p>Egutegiko gertaera bat beste telefono, ordenagailu edo gailu batera bidaltzeko:</p> <p> &gt;  <b>Herramientas</b> &gt; <b>Calendario</b>, nabarmendu eguna, sakatu , nabarmendu gertaera eta sakatu <b>Opciones</b> &gt; <b>Enviar</b></p>
<b>egutegiko hilabete bat, aste bat edo egun bat inprimatzea, Bluetooth® konexio baten bidez</b>	<p>Haririk gabeko Bluetooth konexio bat erabil dezakezu egutegiko hilabete, aste edo egun bat telefonotik inprimagailura bidaltzeko. </p> <p> &gt;  <b>Herramientas</b> &gt; <b>Calendario</b></p> <p>Joan hileko, asteko edo eguneko ikuspegira, eta sakatu <b>Opciones</b> &gt; <b>Imprimir</b>.</p> <p>Bluetooth konexioei buruz informazio gehiago izateko, ikus 42. orrialdea.</p>
<b>kalkulagailua</b>	<p> &gt;  <b>Herramientas</b> &gt; <b>Calculadora</b></p>
<b>moneta-bihurgailua</b>	<p>Sartu truke-tasa, sakatu <b>Aceptar</b> tekla, idatzi zenbatekoa eta sakatu <b>Opciones</b> &gt; <b>Convertir Moneda</b>.</p>




# segurtasuna

funtzioak	
<b>SIMaren PINa</b>	<b>Kontuz:</b> Hiru aldiz segidan okerreko PIN kodea sartzen baduzu, SIM txartela desaktibatu egingo da eta telefonoak <b>SIM Bloqueado</b> mezua bistaratuko du.  SIM txartela blokeatzeko edo desblokeatzeko:  •> >  <b>Configuración &gt; Seguridad &gt; Cambiar PIN</b>
<b>blokeatzeko funtzioa</b>	•> >  <b>Configuración &gt; Seguridad &gt; Bloqueo Aplicación</b>



# denbora-pasak eta jokoak

**Oharra:** Irudien, soinuen edo bestelako objektuen ondoan azaltzen diren blokeo-ikonoek (🔒) esan nahi dute ezin dela objektu hori bidali edo kopiatu.

Kamerari buruz oinarritzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus 34. orrialdea.

funtzioak	
<b>irudiak ikustea, ezabatzea edo administratzea</b>	Argazkiak, irudiak eta animazioak administratzeko:  •> >  <b>Multimedia &gt; Imágenes</b> 
<b>bideoak ikustea, ezabatzea edo administratzea</b>	•> >  <b>Multimedia &gt; Videos</b>



funtzioak		
<b>soinuak entzutea, ezabatzea edo administratzea</b>	Doinuak eta musika administratzeko:  >  <b>Multimedia &gt; Sonidos</b>	 
<b>nabigatzailea abiaraztea</b>	Sakatu hau  : Telefonoak nabigatzailearen konfigurazioa irakurtzen du USIM txartetik. USIM txartela kentzen baduzu, telefonoak caché memoria ezabatuko du nabigatzailetik. Konfigurazioa aldatzeko, ikus 95. orrialdea.	 
<b>web gune bateko objektuak deskargatzea</b>	Web orri batetik irudi, soinu edo bestelako objektu bat deskargatzeko: Sakatu  , joan fitxategiari dagoen orrira, nabarmendu eta hautatu. <b>Oharra:</b> antenan igarotako denboragatik eta/edo zerbitzua erabiltzeagatik dagozkion tasa arruntak aplikatuko dira.	 
<b>Wap profilak</b>	Telefonoak Internetera sartzeko erabiltzen dituen konfigurazioak dituzte <i>wap profilek</i> . Wap profil bat hautatzeko edo sortzeko:  >  <b>Opciones WAP &gt; Perfiles WAP</b>	 
<b>nabigatzailearen historikoa ezabatzea</b>	Nabigatzailearen historikoa, cachéa edo cookieak ezabatzeko  >  <b>Opciones WAP &gt; Config. Navegador</b>	 

## funtzioak

### Joko bat edo aplikazio bat deskargatzea

Jokoak edo Java™ aplikazioak deskarga daitezke irudiak edo bestelako objektuak deskargatzen diren bezalaxe:




Sakatu , joan fitxategiari dagoen orrira, nabarmendu eta hautatu.

**Oharra:** antenan igarotako denboragatik eta/edo zerbitzua erabiltzeagatik dagozkion tasa arruntak aplikatuko dira.

### joko bat edo aplikazio bat abiaraztea

Java™ aplikazio bat edo joko bat abiarazteko:



•◐• >  **Aplicaciones**, nabarmendu joko bat edo aplikazioa, eta sakatu •◐• tekla.

**Oharra:** memorian gordetako jokoak instalatzeko edo exekutatzeko, sakatu •◐• >  **Aplicaciones** > [Nueva].

## funtzioak

### hegazkin modua

Telefonoa hegazkin moduan jar dezakezu, sarearekin komunikaziorik izan ez dezan. Horrela, jokoak eta bestelako aplikazioak erabil ditzakezu hegazkin batean zauden bitartean, hegazkinaren komunikazioetan eraginik izan ez dezan.

☰ >  **Configuración > Modo Avión > Modo Avión > Activado**

Telefonoa pizten duzun bakoitzean, hegazkin moduan jartzeko aukera bistara dadin konfigura dezakezu:

☰ >  **Configuración > Modo Avión > Mensaje al Encender > Activado**

# Absortzio Espezifikoaren Koefizienteari buruzko datuak

---

## **MODELO HONEK BETE EGITEN DITU IRRATI-UHINEK PERTSONENGAN DUTEN ERAGINAREN NAZIOARTEKO ARAUDIA**

Zure gailu mugikorra irrati-uhinen transmisorea eta hartzailea da. Irrati-uhinen eragina jasateko nazioarteko araudian finkatutako mugak ez gainditzeko diseinatuta dago. Arau horiek ICNIRP zientzia-erakunde independenteak garatu ditu eta pertsona ororen –adina eta osasun-egoera gorabehera– segurtasuna ziurtatzeko diseinatutako segurtasun-tarteak dituzte.

Araudi horiek Absortzio Espezifikoaren Tasa (SAR) izeneko neurri-unitatea ibiltzen dute. Jendeak erabiltzen dituen mugikorretarako ICNIRPeK ezarritako SAR muga 2 W/kg da, eta belarrarian erabiliz egindako probatan gailu honek emandako SAR balio altuena 0,57 W/kg\* da. Gailu mugikorrek funtzio ugari dituztenez, beste atal batzuetan ere erabil daitezke, adibidez gorputzean, erabiltzailearen gidaliburu honetan deskribatzen den bezala\*\*. Kasu honetan, neurtu den SAR balio altuena 0,98 W/kg\* da.

Gailuaren transmisioko potentzia maximoa erabilia neurtzen da SAR balioa; beraz, gailu hau baldintza arruntetan erabiltzen denean, lehen aipatutakoa baino SAR balio baxuagoa du. Hori gertatzen da gailuak potentzia-mailak automatikoki aldatzen dituelako, sarera konektatzeko balio minimoa erabiltzeko.

Telefonoen artean SAR mailan desberdintasunak egon daitezkeen arren eta baldintza desberdinetan erabiltzen diren arren, guztiek betetzen dituzte esposizio segurua ziurtatzeko gobernuen eskakizunak. Kontuan izan modelo honetan egin daitezkeen hobekuntzek aldatu egin dezaketela geroko produktuen SAR balioa. Hala ere, produktu guztiak araudi horien arabera egiten dira.

Munduko Osasun Erakundeak berretsi du egindako azterketa zientifikoak ikusita ez dela beharrezkoa arreta berezirik hartzea gailu mugikorrek erabiltzeko. Horrez gain, adierazten dute esposizio-maila murrizteko deien iraupena murriz dezakezula edo "esku libreko kita" erabil dezakezula, telefono mugikorra burutik eta gorputzetik urrun edukitzeko.

Munduko Osasun Erakundearen web gunean (<http://www.who.int/emf>) edo Motorola, Inc.-en web gunean ([www.siemens.com/mobilephones](http://www.siemens.com/mobilephones)) duzun informazio gehiago.

---

\* Probak nazioarteko araudien arabera egin dira. Mugak segurtasun-tarte handia du, jendeari babes osagarria eman diezaion eta neurketetan edozein aldaketa kontuan izan dadin. Informazio osagarriaren barnean sartzen dira Motorolaren proben protokoloa, balorazio-prozedura eta produktu honetarako ziurgabetasun-marjina neurketan.

\*\* Ikus gorputzetik gertu erabiltzeari buruzko Segurtasuna eta informazio orokorra atala.

# Aurkibidea

---

## A

adierazlea deietan 51  
ahots bidezko markaketa 74,77 0,90  
ahots-mezua 83  
ahots-postontzia 72  
ahots-postontziko mezuen  
adierazlea 51,72  
aktibo dagoen linearen adierazlea 51  
alarma 92  
alarmaren adierazlea 51  
alerta  
    desaktibatu 59,63,69  
    ezarri 59,63,64  
amaitzeko tekla 1,27  
animazioa 94  
argazkia 34,94  
argia 67  
artxihoak kopiatu 44  
audio digitala 30,32  
audio-erreproduzitzaila 30,32  
aukerako funtzioa 22  
aukerako osagarriak 22  
autorako kita 89  
azken deiak 69

## B

banaketa-zerrenda 80  
bateria 24  
Bateria baja mezua 52  
bateriaren adierazlea 52  
bateriaren iraupena, luzatu  
25,42,65,67  
berrabiarazi 87  
berriro markatu 70

bidaltzeko tekla 1,27

bideoak 36

bideoklipa 94

blokeatu

    aplikazioa 94

    SIM txartela 94

    telefonoa 62

Bluetooth konexioa

    aurkibideko sarrerak,

    bidali 81

    aurkibideko sarrerak,

    inprimatu 82

    deskribapena 42

    egutegiko sarrera, bidali 93

    egutegiko sarrera,

    inprimatu 93

    mezuak, inprimatu 84

    sarbidea mugatu 48

    bolumena 59,86

## C

Código Desbloqueo mezua 61

copyright duten fitxategiak 40

## D

data, doitu 64

datu-deiak 91

datuen adierazlea 50

dei bat amaitu 27,37

dei bat transferitu 76

dei bat zain utzi 75

dei bati erantzun 27,68

deia identifikatu 70,71,79

deia irudiarekin identifikatu 71,79

deia isilarazi 75  
deia konferentzian 75  
deia zain 75  
deia  
    amaitu 27,37  
    egin 27  
    erantzun 27,68  
deiak blokeatu 61,76  
deiak desbideratu 76  
deiak itzuli 71  
dei-desbideraketaren adierazlea 51  
deien kontagailua 88,89  
deitu 27  
desbideratu, deiak 76  
Desblokeatu  
    aplikazioa 94  
    SIM txartela 94  
    telefonoa 26,61 0,62  
desblokeatze-kodea 61,62  
desplazamendu-adierazlea 51  
digituak markatu 74  
distira 67

**E**  
egindako deiak 69  
egutegia 92  
entzungailuak 89  
entzungailuaren bolumena 59  
entzungailuen konexioa 1  
erdiko hautaketa-tekla 22  
erdiko tekla 1,59  
erlojua 64  
esku libreko entzungailua 61  
estalduraren adierazlea 50

**F**  
fax-deia 91  
fokua, argazkiak 34

formatua 67  
funtzio ugariko tekla 60,87  
funtzio-teklak 1,49,87

**G**  
gaia 66  
GPRS adierazlea 50  
guztia ezabatu 88

**H**  
hariak 41  
hegazkin modua 97  
hizkuntza 86

**I**  
ikurrak idazteko modua 59  
informazio-zerbitzuak 85  
inprimatu 45  
ireki erantzuteko 68  
irudia 94  
iTAP idazteko metodoa 55  
izenaren bidez markatu 77

**J**  
jasotako deiak 69  
Java aplikazioak 96  
jokoak 96

**K**  
kalkulagailua 93  
kamera 34  
kanpoko pantaila 60  
kodeak 61,62  
kontagailuak 88,89  
kostuak, segimendua 89

## L

larrialdietako zenbakia 72  
lizentziak 40  
Llamada entrante mezua 71  
Llamadas perdidas mezua 71  
lotura. Ikus Bluetooth konexioa

## M

markaketa bizkorra 77  
markaketa finkoa 76  
memoria-txartela 38  
menua 22,52,86,87  
menuko ikonoak 53,87  
mezua 82,83  
mezuak arakatu 85  
mezu-alertak 63  
mezuaren adierazlea 51  
mezuen jakinarazpenak 86  
mikrofonoa 89  
MP3 soinu-fitxategiak 30,32,33  
multimedia-elementuak  
deskargatu 84,95  
multimedia-mezua 83  
musika 95

## N

nabigatzailea 85,95,96  
nabigazio-tekla 1,22,59  
nazioarteko aurrezenbakia 74

## O

objektuak trukatu 44  
oharrak 86  
ordua, doitu 64  
osagarriak 22,89  
osagarrien konexio-ataka 1

## P

pantaila 49,67  
pantaila nagusia 49,87  
pantaila-babesa 65  
pantailaren hondoa 65  
pasahitzak. Ikus kodeak  
pertsonalizatu 86  
PIN kodea 26,61,94  
PIN2 kodea 61  
pizteko tekla 1,26  
piztu/itzali 26  
posta elektronikoa  
bidali 83  
irakurri eta administratu 84  
konfigurazioa 85

## S

sarearen konfigurazioa 92  
segurtasun-kodea 61  
SIM blokeada mezua 26,94  
SIM txartela 23,26,61,94  
sinkronizazioa 91  
sinkronizazioa. Ikus Bluetooth konexioa

## T

tap idazteko metodoa 57  
tapa 27,68  
teklatua 68,86  
telefono-aurkibidea 70,74,77  
telefono-zenbaki bat markatu 27,76,77  
telefono-zenbakia 29  
testua idatzi 54  
testu-mezua 82,83  
tonua 95  
txirrin-adierazlea 71,78,86  
txirrinaren bolumena 59,86  
txirrin-mota, konfiguratu 59,63  
txirrin-motaren adierazlea 52



**U**

USB kableak 41

**W**

wap profilak 95

web orriak 95

**Z**

zenbakia gorde 29

zenbakia, telefonoa. Ikus telefono-zenbakia

zenbakia. Ikus telefono-zenbakia

zenbakiak gehitu 70,74

zenbakiak idazteko metodoa 58

zure telefono-zenbakia 29





 **Euskaltel**  
*móvil*

*móvil*

